



15

# LANBIDE HEZIKETARAKO Materialak

**ENPRESA TXIKIAREN  
KUDEAKETA:  
LANA, ZERGA SISTEMA  
ETA ADMINISTRAZIOA**

Euskara Zerbitzua  
Ikasmaterialak

Toribio Etxebarria  
Lanbide Heziketarako Materialak

**15**

# **Enpresa txikiaren kudeaketa: lana, zerga sistema eta administrazioa**

M.<sup>a</sup> Itziar Gonzalez de Mendivil Alzola

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

Lan honen bibliografia-erregistroa  
Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren  
katalogoan aurki daiteke:

Un registro bibliográfico de esta obra  
puede consultarse en el catálogo de la  
Biblioteca General del Gobierno Vasco:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

## ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

1. Prototipo elektronikoen garapena eta eraikuntza
2. Finantza kudeaketa
3. Giza baliabideak
4. Kultur animazioa
5. Analisi kimiko eta tresna bidezkoa
6. Laborategiko antolaketa eta kudeaketa
7. Farmazia- eta parafarmazia-produktuen prestaketa
8. Esku-hartze komunitarioen metodología
9. Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak
10. Biltegiatze-lanak
11. Komunitate-garapena
12. Jolasaren oinarri teorikoak eta umeen jolasak: (animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak)
13. Lan prestakuntza eta orientabidea: lan zuzenbidea
14. Fabrikazio mekanika material osagarria
15. Enpresa txikiaren kudeaketa: lana, zerga-sistema eta administrazioa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-07-07)

Argitaraldia: 1.a, 2010ko martxo

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: M.<sup>a</sup> Itziar Gonzalez de Mendivil Alzola

Azala: Jesus Iturriza

Fotokonposaketa: Fotocomposición IPAR, S. Coop.  
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.  
Avda. Cervantes, 51 - 48970 Bilbao (Bizkaia)

I.S.B.N.: 978-84-457-2981-6

L.G.: BI - 560-2010

# AURKIBIDEA

<b>I. ENPRESAREN EKOIZPENA ETA KOSTUAK. IZAKINEN KUDEAKETA</b> .....	5
1.1. Ekoizpen-plana .....	7
1.2. Ordainketa, gastua, kostua eta inbertsioa .....	7
1.3. Ekoizpen-kostuak .....	8
1.4. Ekoizpena, produktibitatea, efikazia eta efizientzia .....	9
1.5. Izakinen kudeaketa .....	10
1.6. Izakinen balorazioa .....	12
1.7. Puntu hila edo errentagarritasun-ataria .....	16
1.8. Ebaluazioa .....	17
1.9. Ariketen ebazpenak .....	18
<b>II. OINARRIZKO DOKUMENTAZIOA ENPRESAREN JARDUERAN</b> .....	23
2.1. Salerosketako agiriak .....	25
2.2. Kontratuak .....	42
2.3. Ebaluazioa .....	47
2.4. Ariketen ebazpenak .....	48
2.5. Ebaluazioa .....	48
<b>III. FINANTZA PLANA. NOLA FINATZATU ENPRESA BAT?</b> .....	49
3.1. Finantza-planaren osagarriak .....	51
3.2. Aurreikusitako balantzea .....	70
3.3. Errentagarritasunaren analisisa .....	71
3.4. Finantzaketa-iturriak .....	72
3.5. Ariketak .....	76
3.6. Ariketen ebazpenak .....	76
<b>IV. BIBLIOGRAFIA</b> .....	87



*Enpresaren ekoizpena  
eta kostuak.  
Izakinen kudeaketa*

**1**



Gai honekin hasi aurretik, enpresa proiektuetako taldeak batu, eta saia zaitezte honako galdera hauei erantzuten.

1. Zuen enpresa-proiektuan, zer ekoitziko duzue, edo zer zerbitzu mota eskainiko duzue? Zehaztu erantzuna.
2. Nola ekoitziko duzue produktua, edo nola eskainiko duzue zerbitzua?
3. Zer motatako lehengaiak edo materialak eta zenbat erosi beharko duzue produktua ekoizteko, edo zuen zerbitzua eskaintzeko?
4. Zer gastu egin beharko duzue produktua ekoizteko, edo zerbitzua betetzeko?
5. Gastu horiek guztiek eragin handia daukate etekinak lortzeko?
6. Zenbat saldu behar duzue etekinak lortzeko?

## 1.1. EKOIZPEN PLANA

Orain arte zuen negozioa zein izan litekeen pentsatu duzue; ideia bat baduzue: ideia berritzailea izan behar du, hau da, ezberdintasun-faktore bat izan behar du, eta kontsumitzaileen beharrak ase behar ditu.

Hemendik aurrera, ahalik eta gehien zehaztu behar duzue nola ekoitziko duzuen produktua: ezaugarri fisikoak, funtzionalak, estetikoak eta abar; edo, zerbitzua bada, nola beteko duzuen.

Ondoren, merkatuaren ikerketan lortutako datuen arabera aurreikusitako salmentak kontuan hartuta, zenbat unitate ekoitziko duzuen zehaztuko duzue.

Azkenik, ekoizpen-prozesuaren aldiak zehaztuko dituzue, pausoz pauso. Horrela jakingo duzue zenbat denbora emango duzuen zuen produktua ekoizteko edo zuen zerbitzua emateko, langile kopurua, haien zereginak eta haientzako lan-eskakizunak.

## 1.2. ORDAINKETA, GASTUA, KOSTUA ETA INBERTSIOA

Kontzeptu ezberdinak dira, eta oso garrantzitsua da ondo bereiztea:

*Ordainketa:* enpresatik dirua ateratzea da. Adibidez, argindarraren faktura kontu korrontean zorduntzea, langileen soldata ordaintzea eta abar.

*Gastua:* ekoizpen-faktore baten kontsumoa da. Adibidez, enpresan argia piztuta dagoenean, enpresaren alokairuak, etab. Gehienetan, enpresak ez du ordaintzen kontsumitzen duen une berean; adibidez, argindarraren faktura bi hiletik behin ordaintzen du; hala ere, horren kontsumoa egiten du.

*Kostua:* enpresak ekoiztiko produktuari dagozkion gastuak dira. Adibidez, ardo-enpresa batek botila bat ardo ekoizteko daukan kostua hau da: beirazko botilarena, kortxoarena, ardoarena, etiketarena, erabilitako argindarra, langileek egindako lanorduak eta abar.



*Inbertsioa*: enpresak egiten duen ondasun ibilgetu baten erosketa da.

*Ibilgetuak*: enpresak luzaroan erabiliko dituen ondasunak dira (eraikinak, makinak, ordenagailuak, altzariak...). Ibilgetuak ekoizpen-jardueran galtzen duen balioari amortizazio deritza. Amortizazioak igo egiten du produktuaren kostua. Adibidez, ardoa botilaratzeko makinaren amortizazioa botila ardo bakoitzaren kostuan sartuko da, dagokion neurrian, jakina.

## **Ariketa**

1. Esan zer den gastua eta zer inbertsioa, honako zerrenda honetan:

- Eraikinak
- Makinak
- Energia elektrikoaren instalazioa
- Osasun- eta segurtasun-neurriak
- Lokalaren alokairua
- Lehengaien erosketak
- Lapurreta-asegurua
- Altzariak
- Patenteak
- Ur-instalazioa

### **1.3. EKOIZPEN KOSTUAK**

Ondasunak ekoizteko edo zerbitzuak emateko, enpresari ekoizpen-faktoreetatik sortzen zaizkion kostuak dira.

Enpresak ondasunak ekoizteko eta zerbitzuak emateko, hainbat kostu dauzka. Horiek bi eratakoak izaten dira: kostu finkoak eta kostu aldakorak.

*Kostu finkoak*: enpresak, existitzeagatik soilik, badauzka kostu batzuk, ekoizpen-bolumenarekin zerikusirik ez dutenak. Adibidez, lokalaren alokairua, uraren, gasaren, argiaren eta telefonoaren kuota finkoa, langile finkoen soldatak, sute-asegurua eta abar.

*Kostu aldakorak*: ekoiztutako kantitatearen arabeko kostuak dira, hau da, enpresak ezer ekoizten ez badu, ez du kostu aldakorrik izango. Adibidez, lehengaiak, ur-kontsumoa, gas-kontsumoa, argindarraren kontsumoa, makineria mantentzea, aparteko orduak eta abar.

*Gutzizko kostuak*: enpresaren kostu guztien batura da (kostu finkoak gehi kostu aldakorak).

Gutzizko kostuak = Kostu finkoak + Kostu aldakorak

$$GK = KF + KA$$

Kostuak produktuaren unitate bakoitzeko ere adierazten dira, eta horiei batez besteko kostuak deritze.

Batez besteko gutzizko kostua = Gutzizko kostuak / Ekoiztutako unitateak

Batez besteko kostu finkoa = Kostu finkoak / Ekoiztako unitateak

Batez besteko kostu aldakorra = Guztizko kostu aldakorra / Ekoiztako unitateak

$$\frac{GK}{F} = \frac{KF}{Q} = \frac{KA}{Q}$$

### Ariketak

1. Epe luzerako kostu finkorik bada?
2. Esan elementu hauen artean zein diren kostu finkoak, eta zein, kostu aldakorrak:
  - Amortizazioak
  - Lokalaren alokairua
  - Garraiatze-gastuak
  - Lehengaiak
  - Gizarte Segurantzako kuotak
  - Publizitatea
  - Aholkularitza
  - Ontziak
  - Kontratu finkoa ez duten langileen soldata (ABE-etako kontratuak, adibidez).
3. Enpresa batek produktu baten 1.000 unitate ekoitzi ditu. Izan dituen kostu finkoak 20.000 € dira, eta batez besteko kostu aldakorra 4 €. Kalkula itzazu guztizko kostua eta batez besteko guztizko kostua, eta azaldu esanahia.

### 1.4. EKOIZPENA, PRODUKTIBITATEA, EFIKAZIA ETA EFIZIENTZIA

Ekoizpena edo produkzioa: enpresak egiten duen prozesua da, non ekoizpen-faktoreak erabiltzen dituen produktua/k sortzeko. Prozesuan *inputak* sartzen dira (lehengaiak, makinak, lana, energia...) eta, teknologia zehatz bat erabiliz, *outputa* (azken produktua) ateratzen da.

Produktibitatea: denbora jakin batean lortutako ekoizpena da, eta hori lortzeko erabilitako ekoizpen-faktoreekin erlazionatzen da. Produktibitateak faktore baten errendimendua neurtzen du, hau da, faktoreak berak ekoizten duena. Unitate fisikotan edo dirutan neur daiteke.

Lanaren produktibitatea = Ekoizpena / Lan unitateak (lanorduak)

Erabateko produktibitatea = Salmenta prezioa / Ekoizpenaren guztizko kostua

Bigarren hori oso baliagarria da enpresa batek hainbat denbora-tarte desberdinetan izan dituen produktibitateak alderatzeko, edo enpresa batzuen eta besteen produktibitateak konparatzeko.

### Adibideak

1. Motxilak josteko makinek 400 motxila josi dituzte 4 orduan. Zenbat da motxilak josteko makinaren produktibitatea?  
 Motxilak josteko makinaren produktibitatea =  $400 / 4 = 100$  motxila orduko

2. 20 lanordu erabili dira 1.000 motxila ekoizteko. Zenbat da lanaren produktibitatea?

$$\text{Lanaren produktibitatea} = 1.000 / 20 = 50 \text{ motxila lanorduko}$$

*Efikaia:* enpresak ezarritako helburuak betetzea da. Adibidez, enpresa baten asmoa 8.000 motxila ekoiztea da, eta unitate horiek ekoiztea lortzen du.

*Efizientzia:* enpresak ezarritako helburuak lortzeko duen gaitasuna da, betiere gutxieneko baliabideak erabiliz. Aurreko adibidearekin jarraituz, enpresak 8.000 motxila ekoizten ditu, baina lanordu kopurua eta oihalaren kostua gutxituta.

## Ariketa

1. Hiru langilek egun batean produktu baten 300 unitate ekoizten dituzte 8 orduko lanaldian. Kalkula ezazu langileen orduko produktibitatea.

## 1.5. IZAKINEN KUDEAKETA

*Izakinak* enpresak biltegian dituen materialak dira, gero ekoizpenean erabiltzeko (lehen-gaiak, produktu erdilanduak, etab.) nahiz bezeroei saltzeko (produktu amaituak). Izakinei *stock* ere deitzen zaie.

*Inbentarioa* da une jakin batean biltegian dauden materialen edota produktu baloratuen zerrenda.

Izakinen kudeaketaren bidez, enpresa saiatzen da behar dituen material mota guztiak lortzen, kopuru egokian —stock-haustura ez suertatzeko—, betiere kostu gutxienekoarekin. Stocken kudeaketan honako bi aldagai hauek hartu behar dira kontuan:

- a) Inbentarioari eusteko kostuak: lokala, aseguruak, biltegiko langileak, izakinen zaharkitzearen edo balio-galeren kostuak, finantzaketa-kostua eta abar.
- b) Eskaera-kostuak: telefona, inprimakiak, administrazioko langileak edo bulegariak, garraioa eta abar. Hortaz,

$$\text{Gutzizko kostua} = \text{Mantentze-kostu osoa} + \text{Eskaera-kostua}$$

$$GK = MK + EK$$

*Eskaeraren tamaina (Q).* Gakoa hau da: zer kantitate eskatu behar du enpresak guztizko kostua ahalik eta txikiena izateko edo minimizatzeko? Horretarako, badago eredu bat, baina honako baldintza hauek bete behar dira aplikatu ahal izateko:

- Enpresak artikulua baten kantitate bera eskatzen du beti: eguneroko kontsumoa berdina da.
- Artikuluaren prezioa ez da aldatzen.
- Hornikuntza-epea berdina da beti.

Segurtasun-stocka (Ss): biltegian dagoen material baten gutxieneko kopurua da, edozein arazorengatik hausturarik gerta ez dadin (greba dela eta, produkturik ez dagoela eta...).

Aldagaia: *Eskaera-tamaina* ( $Q$ )

Datuak:

- *Unitate bakoitzeko mantentze-kostuak* ( $MK$ )
- *Artikuluaren kontsumoa urteko* ( $T$ )
- *Eskaera kopuruak urteko* ( $T / Q$ )
- *Kostuak eskaera bakoitzeko* ( $EK$ )
- *Biltegian dagoen stockaren batezbestekoa* ( $Q / 2$ )

Aurreko formula erabilita,

$$\begin{aligned} \text{Gutzizko kostua} &= MK + EK \\ GK &= \left( \frac{Q}{2} + Ss \right) \cdot MK + \left( \frac{T}{Q} \right) \cdot EK \end{aligned}$$

*Eskaera-tamaina hobeazina* ( $Q$ ). Gutzizko kostuaren funtzioa minimizatzen denean lor-tzen da, hau da, deribatzen eta zerorekin berdintzen dugunean. Beraz,

$$\frac{dGK}{dQ} = \frac{MK}{2} - \frac{T \cdot EK}{Q^2} = 0$$

$Q$  aldagaia askatuz:

$$\begin{aligned} Q^2 &= \frac{2 \cdot T \cdot EK}{MK} \\ Q &= \sqrt{\frac{2 \cdot T \cdot EK}{MK}} \end{aligned}$$

*Eskaera-puntua* ( $EP$ ). Hornitzeko eskaera egitera behartzen gaituen izakinen maila da.

$$EP = (\text{hornikuntza-epea} \times \text{kontsumoa}) + Ss$$

## Adibideak

1. Enpresa batek 35 kg eztaian kontsumitzen ditu eguneko. Hornitzaileak 6 egun behar ditu eskaria zerbitzatzeko, garraio-saria ordaindurik. Enpresaren segurtasun-stocka 50 kilogramokoa da.

Zenbat kilogramo eztaian eskatu behar du enpresak eskari bakoitzean?

Ebazpena:

$$EP = (35 \text{ kg eguneko} \times 6 \text{ egun}) + 50 = 210 + 50 = 260 \text{ kg}$$

2. Enpresa batek 1.000 unitate lehengai kontsumitzen ditu urtero. Eskaera baten kostua 10 € da, eta biltegiko mantentze-kostua 2 € da urtean, unitate bakoitzeko.

Hornitzeko epea 4 egunekoa da, eta segurtasun-stocka, 120 unitate. Kalkulatu:

- Eskaera hobezina.
- Izakinaren kudeaketaren urteko guztizko kostuak.

Ebazpena:

$$T = 1.000 \text{ unitate}$$

$$EK = 10 \text{ €}$$

$$MK = 2 \text{ € unitate bakoitzeko, urtero}$$

- $Q = \sqrt{2T} \cdot ek/mk = \sqrt{2} \cdot 100 \cdot 10/2 = 100$  unitate eskaera bakoitzean
- $GK = MK + EK$

$$GK = (Q/2 + Ss) MK + T/Q \times EK = \\ = (100/2 + 120) 2 + 1.000 / 100 \cdot 10 = (50 + 120) 2 + 100 = 440 \text{ €/urte}$$

3. Aurreko ariketan emandako datuak kontuan hartuz, kalkula itzazu honako hauek:

- Zenbat eskaera egingo ditu urtean enpresak?
- Zenbat egun pasatu behar dira enpresak eskaerak egiteko?
- Zenbat da lehengaiaren eguneko kontsumoa?
- Zenbat lehengai egon behar du biltegian hurrengo eskaera egiteko?

Ebazpena:

- Urteko eskaerak =  $T/Q = 1.000 / 100 = 10$  eskaera urtean.
- $365 / 10 = 36,5$  egun.
- $1.000 / 365 = 2,73$  unitate / egun.
- Hornitzeko-epea 4 egunekoa da, eta enpresak egunero 2,73 unitate kontsumitzen ditu; beraz, biltegian  $2,73 \times 4 = 10,92$  unitatek gelditu behar dute (gehi segurtasun-stocka), haustura gerta ez dadin.

## 1.6. IZAKINEN BALORAZIOA

Biltegian dauden materialak Kontabilitate Plan Orokorraren arabera baloratu behar dira.

### Artikuluen sarrerak

Erosketa-prezioan —fakturan azaltzen dena— baloratu behar dira, operazioen gastuak barne: garraioak, aseguruak, etab. Balio Erantsiaren Zerga (BEZ) ez da sartzen. Enpresan bertan ekoiztutako produktuak badira, orduan ekoizpen-kostuaren arabera baloratzen dira.

### Artikuluen irteerak

Askotan, biltegian produktu beraren sorta bat baino gehiago daude, prezio desberdinetan erosiak, edo kostu desberdinetan ekoiztiak. Hori dela eta, zaila da erabakitzea zein unitate

saldu edo atera behar diren lehenengo: biltegian denbora gehiago daramatenak ala sartu diren azkenekoak.

Araudiak gomendatzen du Batez Besteko Prezio Haztatua (BPH) erabiltzea, nahiz eta FIFO irizpidea erabil litekeen.

### **BPH irizpidea**

Batez besteko prezioa zenbateko guztiaren eta unitate kopuruaren arteko zatiketaren emaitza da. Salneurria aldatu egiten da beste sarrera bat gertatzen den bakoitzean.

### **FIFO irizpidea (*First In First Out* ingelesez, hau da, Lehen Sarrera Lehen Irteera)**

Biltegitik ateratzen diren izakinak beti dira zaharrenak, eta sartu diren azkenak gelditzen dira biltegian.

### **Adibidea**

Otsailean biltegian A002 artikulua eragiketa hauek gertatu direla jakinda, bete ezazu artikulua horren otsaileko biltegi fitxa, BPH eta FIFO irizpideak erabiliz, eta zehaztu artikulua horren izakinen balioa eta gelditzen diren unitateak.

02-01	Hasierako izakinak:	500 unitate	750 €/unitate
02-10	Erosketa:	750 unitate	770 €/unitate
02-15	Salmenta:	1.000 unitate	800 €/unitate
02-19	Erosketa:	800 unitate	875 €/unitate
02-28	Salmenta:	975 unitate	880 €/unitate

*Kontuz:* salmenta-prezioak ez dira kontuan hartu behar; apropos eman dira, arreta jartzeko. Salmenta-prezioak diru sarrerak kalkulatzeko erabiltzen dira eta, orduan, etekinak:

$$\text{Etekinak} = \text{diru-sarrerak} - \text{kostuak}$$

Artikulua prezioa igotzen baldin badao —inflazio-egoera—, FIFO irizpidea erabili beharrean, BPH irizpidea erabiltzen badu enpresak, izakinen balorazioa txikiagoa izango da; eta BPH irizpidea erabili beharrean, enpresak FIFO irizpidea erabiltzen badu, orduan, izakinen balioa handiagoa izango da.

Eta artikulua prezioa, jaisten baldin badao, aldiz, eta enpresak FIFO irizpidea erabiltzen badu, izakinen balorazioa txikiagoa izango da; eta alderantziz, BPH irizpidea erabiliz gero, orduan, izakinen balioa handiagoa izango da.

Enpresak behin irizpide bat aukeratuta, irizpide horrekin jarraitu behar du aurrerantzean.

ARTIKULUA:		Gehieneko stocka:				BALORAZIO IRIZPIDEA: BPH				
		Gutxieneko stocka:								
Erreferentzia:	DATA	Segurtasun-stocka:		Eskaera-puntua:						
		DESKRIBAPENA	SARRERA	PREZIOA	BALIOA	IRTEERA	KOPURUA	BALIOA	PREZIOA	BALIOA
			KOPURUA	PREZIOA	BALIOA	KOPURUA	BALIOA	PREZIOA	BALIOA	
	Otsailaren 2an	Hasierako izakinak					500	750,0	375.000	
	Otsailaren 10ean	Erosketa	750	770	577.500			762,0	952.500	*
	Otsailaren 15ean	Salmenta				1.000	762.000	762,0	190.500	
	Otsailaren 19an	Erosketa	800	875	700.000			848,1	890.505	**
	Otsailaren 28an	Salmenta				975	826.898	848,1	63.608	

IZAKINEN BALIOA otsailaren 28an: 63.608 €

UNITATEAK: 75

\* (500.750 + 750.770) / 500 + 750 = 762 €

\*\* (190.500 + 700.000) / 250 + 800 = 848,1 €

ARTIKULUA:		Gehieneko stocka:						BALORAZIO IRIZPIDEA: FIFO					
Erreferentzia:		Gutxieneko stocka:						Eskaera-puntua:					
DATA	DESKRIBAPENA	SARRERA			IRTEERA			IZAKINAK					
		KOPURUA	PREZIOA	BALIOA	KOPURUA	PREZIOA	BALIOA	KOPURUA	PREZIOA	BALIOA			
Otsailaren 2an	Hasierako izakinak							500	750	375.000			
Otsailaren 10ean	Erosketa	750	770	577.500				500	750	375.000			
Otsailaren 15ean	Salmenta				500	750	375.000						
Otsailaren 19an	Erosketa	800	875	700.000				250	770	192.500			
Otsailaren 28an	Salmenta				250	770	192.500	800	875	700.000			
					725	875	634.375	75	875	65.625			

IZAKINEN BALIOA otsailaren 28an: 65.625 €.  
UNITATEAK: 75.

**Iruzkina:** artikularen prezioa igotzen denez gero, hau da, inflazio-egoeran, FIFO irizpidea erabili beharrean, BPH irizpidea erabiltzen badu enpresak, izakinen balorazioa txikiagoa izango da; eta, BPH irizpidea erabili beharrean, enpresak FIFO irizpidea erabiltzen badu, orduan, izakinen balioa handiagoa izango da.



**Ariketa**

1. Idorki, S.L. enpresak ile-lehorgailuak merkaturatzen ditu. Apirilean, operazio hauek egin ditu 25-G erreferentzia daukan ile-lehorgailuarekin:

04-01	Hasierako izakinak:	200 unitate	10 €/unitate
04-04	Erosketa:	400 unitate	12 €/unitate
04-06	Erosketa:	800 unitate	7 €/unitate
04-21	Salmenta:	200 unitate	15 €/unitate
04-26	Erosketa:	400 unitate	2 €/unitate
04-30	Salmenta:	1.200 unitate	7 €/unitate

Bete dagozkion biltegi-fitxak, eta kalkulatu izakinen balioa apirilaren 30ean, bi irizpideak —BPH eta FIFO— erabiliz. Komenta itzazu haien arteko aldeak eta zergatiak.

**1.7. PUNTU HILA EDO ERRENTAGARRITASUN ATARIA**

Enpresaren helburua ahalik eta etekin handienak lortzea da. Baina hori lortzeko, ekoiztea ez da nahikoa ekoiztea, ekoiztitakoa saldu ere egin behar da. Beraz, gakoa da zenbat unitate saldu behar duen enpresak guztizko kostuak estaltzeko; handik aurrera irabaziak izango ditu. Puntu horretan enpresaren etekina zero izango da. Puntu hila produktuaren unitatetan kalkulatzen da.

$$\text{Etekinak} = \text{Sarrerak} - \text{Gutzizko kostuak} = 0$$

$$\text{Sarrerak} = \text{Gutzizko kostuak}$$

$$\text{Preziora} \times \text{kantitatea} = \text{Kostu finkoak} + \text{Kostu aldakorak}$$

$$p \cdot q = KF + (KA \cdot q)$$

$KA$ : unitate bakoitzeko kostu aldakorra

$q$ : ezezaguna askatzen dugu; beraz:  $p \cdot q - (KA \cdot q) = KF$

$$q(p - KA) = KF; q = KF / (p - KA)$$

**Adibidea**

Enpresa batek A produktua ekoizten du, eta jakin nahi du zenbat ekoitzi behar duen dirurik ez galtzarren. Produktuaren kostu finkoak 750.000 € dira eta unitate bakoitzeko kostu aldakorra 220 €. Salmenta prezioa 270 €/u da.

Ebazpena:

$$q = KF / p - KA$$

$$q = 750.000 / 270 - 220 = 15.000 \text{ unitate}$$

Enpresak 15.000 unitate saltzen baditu, etekina zero izango da. 15.000 unitatetik gora hasiko da enpresa etekinak lortzen.

**Ariketak**

1. Enpresa batek produktu bat ekoizten du honako kostu hauekin: eraikinaren alokairua, 7.000 €; langile finkoak, 35.000 €; beste kostu finkoak, 1.250 €; eta unitate bakoitzeko kostu aldakorra, 7,7 €.

Produktuaren salneurria 15,7 €-koa da.

Kalkulatu produktu horren puntu hila, eta iruzkinak egin.

2. a) Kalkula ezazu zer preziotan saldu behar duen enpresa batek produktu bat kostuak berdintzeko, jakinik kostu finkoak 300.000 € direla, unitate bakoitzeko kostu aldakorrak 180 € direla, eta produktuaren 500.000 unitate salduko dituela.
- b) Zer prezio izan behar du produktuak, enpresaren etekinak unitate bakoitzeko % 20 izateko?

**1.8. EBALUAZIOA**

1. A lursailean, 2 langilek 7 orduko lanaldian 30.000 kg produktu ekoizten dute; eta, B lursailean, 4 langilek 9 orduko lanaldian 50.000 kg ekoizten dute.

Kalkula ezazu kasu bakoitzeko produktibitatea

2. Enpresa batek produktu baten 400.000 unitate ekoizten ditu. Guztizko kostua 35.200.000 € da. Zein da kostua unitateko?
  - a) Batez besteko guztizko kostua: 88 €/u
  - b) Batez besteko guztizko kostua: 98 €/u
  - c) Batez besteko guztizko kostua: 78 €/u
3. Enpresa baten ekoizpen-prozesuan kostu finkoak 2.000 € dira, eta kostu aldakorrak, 15 € unitateko. Zein dira guztizko kostuak produktuaren 200 unitate ekoizteko?
  - a) 5.000 €
  - b) 3.000 €
  - c) 2.000 €
4. Enpresa batek, urtero, 30.000 unitate lehengai behar ditu. Eskaera bakoitza 6.500 € kostatzen da, eta biltegian urtean unitate bat gordetzeko, 4.000 €. Zein da eskaera hobeazina?
  - a) 312 unitate
  - b) 550 unitate
  - c) 100 unitate
5. Enpresa batek artikulua erosi ditu. Nola baloratu behar ditu artikulua horiek?
  - a) Sal ditzakeen prezioan
  - b) Erosketa-prezioan (gastu guztiak sartuta)
  - c) Foru Ogasunak ebatzitako prezioan
6. FIFO irizpidea erabiliz, biltegian dauden stockak eta biltegitik irtendakoak baloratuko dira:
  - a) Artikuluen sarreren arabera
  - b) Azken artikuluen sarreren arabera
  - c) Batez besteko prezio haztatuaren arabera

7. Enpresa batek artikulu baten 50 unitate kontsumitzen ditu egunero, eta segurtasun-stocka 100 unitatekoa da. Hornitzaileak 4 egun behar ditu eskaera zerbitzatzeko. Hor-taz, biltegian zenbat unitate daudenean egin behar da eskaera?
  - a) 100 unitate
  - b) 150 unitate
  - c) 300 unitate
8. Enpresa batek bi aukera ditu: bata, jantziak erostea, bakoitza 2.000 €-an; eta bestea, jantziak ekoiztea 3.000.000 €-ko kostu finkoekin eta 800 €-ko batez besteko kostu aldakorrek. Hirurehun jantzi behar baditu, zer komeni zaio, jantziak erostea ala ekoiztea?
  - a) Erostea
  - b) Ekoiztea
  - c) Berdin zaio, erostea zein ekoiztea

## **1.9. ARIKETEN EBAZPENAK**

### **1.9.1. Ordainketa, gastua, kostua eta inbertsioa**

1. Esan zer den gastua eta zer inbertsioa:
  - Eraikinak: inbertsioa
  - Makinak: inbertsioa
  - Energia elektrikoaren instalazioa: inbertsioa
  - Osasun- eta segurtasun-neurriak: inbertsioa
  - Lokalaren alokairua: gastua
  - Lehengaien erosketak: gastua
  - Lapurtze-asegurua: gastua
  - Altzariak: inbertsioa
  - Patenteak: inbertsioa
  - Ur-instalazioa: inbertsioa

### **1.9.2. Ekoizpen-kostuak**

1. Epe luzerako kostu finkorik bada? Arrazoitu.

Kostuak, epe luzerako, aldakorrak direla esan daiteke. Epe luzean ekoiztako fak-tore guztiak alda daitezke, ez dago finko mantentzen den faktorerik. Epe luzean dena berriz planteatu daiteke; horregatik dira ekoizpen-faktore guztiak aldakorrak.
2. Esan honako elementu hauen artean zein diren kostu finkoak, eta zein, kostu alda-korrak:
  - Amortizazioak: kostu aldakorrak
  - Lokalaren alokairua: kostu finkoak
  - Garraiatze-gastuak: kostu aldakorrak
  - Lehengaiak: kostu aldakorrak
  - Gizarte Segurantzako kuotak: kostu finkoak
  - Publizitatea: kostu finkoak

- Aholkularitza: kostu finkoak
  - Ontziak: kostu aldakorak
  - Kontratu finkoa ez duten langileen soldata (ABE-etako kontratuak, adibidez): kostu aldakorak
3. Enpresa batek produktu baten 1.000 unitate ekoitzi ditu. Izan dituen kostu finkoak 20.000 € dira, eta batez besteko kostu aldakorra, 4 €. Kalkula itzazu guztizko kostua eta batez besteko guztizko kostua, eta azaldu esanahia.

a)  $\text{Guztizko kostua} = \text{Kostu finkoak} + \text{Kostu aldakorak}$

$$\text{Guztizko kostua} = 20.000 + (4 \times 1.000) = 24.000 \text{ €}$$

b)  $GK / Q = KF / Q + KA / Q$

$$GK / Q = 24.000 / 1.000 = 24 \text{ €}$$

edo

$$\text{Batez besteko guztizko kostua} =$$

$$20.000 / 1.000 + (4 \times 1.000) / 1.000 = 20 + 4 = 24 \text{ €}$$

Guztizko kostua enpresak ondasunak ekoizteko edo zerbitzuak emateko ekoizpen-faktoreetatik ordaindu behar duena da. Batez besteko guztizko kostua enpresak ondasun bat ekoizteko edo zerbitzu bat emateko ekoizpen-faktoreetatik batez beste ordaindu behar duena da.

### 1.9.3. Ekoizpena, produktibitatea, efikazia eta efizientzia

1. Hiru langilek egun batean produktu baten 300 unitate ekoizten dituzte 8 orduko lanaldian. Kalkula ezazu langileen orduko produktibitatea.

$$\text{Lanaren produktibitatea} = \text{Ekoizpena} / \text{Lan-unitateak (lanorduak)}$$

$$\text{Lanaren produktibitatea} = 300 / 3 \times 8 = 300 / 24 = 12,5 \text{ motxila orduko}$$

### 1.9.4. Izakinen balorazioa

1. Idorki, S.L. enpresak ile-lehorgailuak merkaturatzen ditu. Apirilean, operazio hauek egin ditu 25-G erreferentzia daukan ile-lehorgailuarekin:

04-01	Hasierako izakinak	:	200 unitate,	10 € unitate bakoitzeko
04-04	Erosketa	:	400 unitate,	12 € unitate bakoitzeko
04-06	Erosketa	:	800 unitate,	7 € unitate bakoitzeko
04-21	Salmenta	:	200 unitate,	15 € unitate bakoitzeko
04-26	Erosketa	:	400 unitate,	2 € bakoitzeko
04-30	Salmenta	:	1.200 unitate,	7 € bakoitzeko

Bete dagozkion biltegi-fitxak, eta kalkulatu izakinen balioa apirilaren 30ean bi irizpideak, BPH eta FIFO, erabiliz. Komenta itzazu haien arteko aldeak eta zergatiak.

ARTIKULUA: Ile-lehorgailua		Gehieneko stocka:				BALORAZIO IRIZPIDEA: BPH			
		Gutxieneko stocka:							
Erreferentzia: 25-G		Segurtasun-stocka:				Eskaera-puntua:			
DATA	DESKRIBAPENA	SARRERA		IRTEERA		IZAKINAK			
		KOPURUA	PREZIOA	BALJOA	KOPURUA	BALJOA	PREZIOA	BALJOA	
Apirilaren 1ean	Hasierako izakinak						10,00	2.000	
Apirilaren 4an	Erosketa	400	12	4.800			11,33	6.798	
Apirilaren 6an	Erosketa	800	7	5.600			8,86	12.404	
Apirilaren 21ean	Salmenta				200	1.772	8,86	10.632	
Apirilaren 26an	Erosketa	400	2	800			7,15	11.440	
Apirilaren 30ean	Salmenta				1.200	8.580	7,15	2.860	

IZAKINEN BALJOA apirilaren 28an: 2.860 €.

UNITATEAK: 400.

ARTIKULUA: Ile-lehorgailua		Gehieneko stocka:						BALORAZIO IRIZPIDEA:FIFO					
		Gutxieneko stocka:											
Erreferentzia: 25-G		Segurtasun-stocka:						Eskaera-puntua:					
DATA	DESKRIBAPENA	SARRERA			IRTEERA			IZAKINAK					
		KOPURUA	PREZIOA	BALJOA	KOPURUA	PREZIOA	BALJOA	KOPURUA	PREZIOA	BALJOA			
Apirilaren 1ean	Hasierako izakinak							200	10	2.000			
Apirilaren 4an	Erosketa	400	12	4.800				200	10	2.000			
								400	12	4.800			
Apirilaren 6an	Erosketa	800	7	5.600				200	10	2.000			
								400	12	4.800			
								800	7	5.600			
Apirilaren 21ean	Salmenta				200	10	2.000	400	12	4.800			
								800	7	5.600			
Apirilaren 26an	Erosketa	400	2	800				400	12	4.800			
								800	7	5.600			
								400	2	800			
Apirilaren 30ean	Salmenta				400	12	4.800						
					800	7	5.600	400	2	800			

IZAKINEN BALJOA apirilaren 28an: 800 €.  
UNITATEAK: 400.

**Iruzkina:** izakinen balorazioa askoz handiagoa da BPH irizpidea erabiltzen dugunean (FIFO irizpidearekin konparatzen badugu), artikuluen prezioak gero eta txikiagoak baitira; eta gelditzen diren artikuluen garestiagoak izan dira.

**1.9.5. Puntu hila edo errentagarritasun-ataria**

1. Enpresa batek produktu bat ekoizten du honako kostu hauekin: eraikinaren alokairua, 7.000 €; eskulangintza finkoak (langile finkoak), 35.000 €; beste kostu finko batzuk, 1.250 €, eta unitate bakoitzeko kostu aldakorra, 7,7 €.

Produktuaren salmenta-prezioa 15,7 €-koa da.

Kalkulatu produktu horren puntu hila, eta azaldu.

$$q = KF / (p - KA)$$

$$KF = 7.000 + 35.000 + 1.250 = 43.250 \text{ €}$$

$$p = 15,7 \text{ €}$$

$$KA = 7,7 \text{ €}$$

$$q = 43.250 / 15,7 - 7,7 = 43.250 / 8 = 5.406,25 \text{ unitate}$$

Hau da, 5.407 unitate.

Enpresak 5.407 unitate baino gehiago ekoizti eta saldu behar ditu, etekinak lortzeko. Kantitate horrekin, enpresak ez du ez etekinik ez galerarik izango, puntu hila delako. Kantitate hori baino gutxiago saltzen badu, enpresak galerak izango ditu; eta kantitate hori baino gehiago saltzen badu, berriz, etekinak lortzen hasiko da.

2. a) Kalkula ezazu zer preziotan saldu behar duen enpresa batek produktu bat kostuak berdintzeko, jakinik bere kostu finkoak 300.000 € direla, unitate bakoitzeko kostu aldakorrak 180 € direla, eta salduko diren produktuen kopurua 500.000 unitate direla.

$$q = KF / (p - KA)$$

$$q(p - KA) = KF ; q \times p = KF + (q \times KA); p = [(KF + q \times KA)] / q$$

$$p = [300.000 + (500.000 \times 180)] / 500.000 = 90.300.000 / 500.000 = 180,06 \text{ €}$$

- b) Zein izan behar du produktuaren prezioak enpresaren etekinak unitate bakoitzeko % 20 izateko?

$$180,6 + (180,6 \times 0,20) = 216,72 \text{ €}$$

**1.9.6. Ebaluazioa**

1. A lursaileko langileen produktibitatea:

$$30.000 / (2 \times 7) = 30.000 / 14 = 2.142,8 \text{ unitate orduko}$$

A lursaileko langileen produktibitatea:

$$50.000 / (4 \times 9) = 50.000 / 36 = 1.388,8 \text{ unitate orduko}$$

2. a)
3. a)
4. c)
5. b)
6. a)
7. c)
8. b)

*Oinarrizko  
dokumentazioa  
enpresaren jardueran*

**2**





Gai honekin hasi aurretik, enpresa-proiektuetako taldeak batu, eta saia zaitezte honako galdera hauei erantzuten.

1. Zuen enpresaren jardueran materialak edo zerbitzuak erabili beharko dituzue. Zein izango dira, gutxi gorabehera, eta zer motatakoak?
2. Nola eskuratuko dituzue material edo produktu horiek? Badakizue zer prozesu jarraitu behar duzuen?
3. Zer agiri edo dokumentu erabili behar izango duzue?
4. Nola erabiliko dituzue?

## 2.1. SALEROSKETAKO AGIRIAK

Enpresak, bere jarduerarako, hainbat material eta zerbitzu eskuratu behar ditu, gero, prozesu baten bidez, merkaturatzeko.

Enpresak erosi eta saldu egiten du merkatu desberdinetan. Horregatik, enpresak salmenta- zein erosketa-eragiketarako salerosketa-agiriak formalizatu eta bete behar ditu. *Hona hemen salerosketa-prozesua, bai eta prozesuan erabiltzen diren agiriak ere:*

1. *Erosleak eskaria* egiten du, produktua edo zerbitzua erosteko.
2. *Saltzaileak*, produktuarekin batera, *albarana* bidaltzen dio erosleari (bezeroari).
3. *Saltzaileak* erosketa formalizatzen du *fakturaren* bidez, eta erosleari ematen dio.
4. Erosleak fakturaren zenbatekoa *ordaintzen dio* saltzaileari, hitzartutako eran eta unean.
5. Saltzaileak saldutakoa kobratu ondoren, *ordainagiria* bidaltzen dio erosleari.

Prozesuan agiri asko erabiltzen dira, eta pertsona askok parte hartzen dute; beraz, kome-nigarria da ahalik eta modurik argienez egitea.

### 2.1.1. Eskaria

Enpresak erosketa egitea erabakitzen duenean, eskaria egin beharko dio saltzaileari. Eskarian, enpresak erosi nahi dituen artikuluak agertuko dira, baita erosketaren baldintzak ere (artikuluen salneurriak, igortzeko modua, eskaria entregatu behar den tokia, ordainketa-baldintzak, entregatzeko data, garraio eta aseguruaren gastuak noren kontu diren, aplikatu daitezkeen deskontuak...).

Ez dago eskari-eredu jakin bat, enpresa bakoitzak egiten du berea. Batzuetan, enpresa erosleak egiten du eskaria, eta haren identifikazioa agertuko da agirian. Baliteke hitzez egitea ere, zuzenean nahiz telefonoz; hala ere, badaezpada, gomendatzen da, gero, idatziz baieztatzea. Beste batzuetan, enpresa saltzaileak bere bitartekariaren bidez egiten du eskaria.

## Adibidea

GOTIC, S.A.  
Carretera Vizcaína, 23 - 33207 GIJÓN

Gijón, 2008ko urtarrilaren 15a

CERALIN, S.L.  
Avda. del Mediterráneo, 56 - 12520 NULES (Castellón)

Jaun agurgarriok:

Gure izakinak berriz hornitzearren, honako material hauek eskatzen dizkizuegu:

300.000 artelazki baldosa, 240 × 240 XP 234A erref.; prezioa: 0,80 €/u

150.000 artelazki baldosa, 125 × 125 CR 678W erref.; prezioa: 0,65 €/u

200.000 artelazki baldosa, 175 × 150 XD 900Z erref.; prezioa: 0,75 €/u

*Baldintzak:* garraio- eta aseguru-gastuak zuen kontura izango dira. Seur, S.A. enpresak egingo du garraioa. Salgaiak eskura emango dizkiguzue gure biltegian, Candás kalea, 24-26.

*Entregatzeko data:* eskaera-datatik 15 egunera.

*Ordaintzeko baldintzak:* eskura, % 3ko deskontuarekin.

Materialak zehaztutako baldintzen arabera jasoko ditugulakoan, agurtzen zaituztet.

EROSKETA BURUA

Santiago Meana García

### 2.1.2. Albarana

Albarana bezeroak entrega batean jasotako produktuak zerrendatzeko erabiltzen den agiria da; alegia, eskariko merkantziak zehazten eta egiaztatzen dituen merkantzia-ematearen agiria da. Saltzailea, behin eskaera jasota, materialak prestatzen hasten da, dagokion albaranarekin bezeroari bidaltzeko.

Albaran edo emate-agiriak lau kopia ditu:

1. Biltegirako, artikuluen irteera frogatzeko.
2. Salmenta sailerako, gero faktura egiteko.
3. Bezeroarentzat, jasotako artikuluen ziurtagiri gisa.
4. Saltzailearentzat, bezeroak sinatuta, jasotako salgaien onarpen-agiri gisa.

Artikuluak garraiatzeko garraio-enpresa bat kontratatzen badu, bezeroak garraio-oharra ere jasoko du, non zerbitzua eta horren kostua agertuko baita. Garraio-kostuak bere kontu baldin badira, ordaindu egingo ditu, eta horren ordainagiria jasoko du.

Saltzailearen kontura baldin badira, berriz, bezeroak sinatu baino ez du egingo, gero garraio-enpresak saltzaileari ziurtagiri gisa aurkezteko, eta hala, kobratu ahal izateko.

Albaranak ez dauka eredu ofizialik; hala ere, datu hauek jaso behar ditu: eroslearen eta saltzailearen datuak, albaranaren zenbakia eta data, dagokion eskari-zenbakia, emate- eta igorpen-data, garraioa —ordaindua ala ordaintzekoa— eta salgaien deskribapena.

### Albaranaren eredu bat

ALBARANA				
<i>Izen komertziala:</i>				
Izen soziala:				
IFZ edo IFK <sup>1</sup> :		Albaran-zk.		
Helbidea eta telefonoak:				
<i>Bezeroa:</i>				
Izena:		Data:		
Helbidea:		Eskariaren zenbakia edo erreferentzia:		
NAN edo IFK:		Lotea:		
Telefonoa:				
Faxa:				
Artikuluaren kodea	Deskribapena	Kop.	Salneurria unitateko	Guztira
Baldintzak:		Guztira:		
		Sinadura:		

<sup>1</sup> IFK: identifikazio fiskaleko kodea. IFZ: identifikazio fiskaleko zenbakia.

### **2.1.3. Faktura**

Agiri honi esker formalizatzen dira salerosketa-eragiketak. Bi kopia egin behar dira, alderdi bakoitzak berea eskura dezan.

Profesionalek eta enpresariak, beren jardueran, fakturak jaulki behar dituzte. Fakturak egiteko eredu bat baino gehiago dago, baina datu hauek agertu behar dute beti:

- Eroslearen eta saltzailearen datu guztiak (izen soziala, IFK edo IFZ eta helbidea)
- Fakturaren zenbakia
- Igorpen-tokia eta data
- Salgaien edo zerbitzuen deskribapena, kantitateak, salneurriak...
- Deskontuak eta gastuak: komisioak, aseguruak, garraioak...
- BEZaren (Balio Erantsiaren Gaineko Zerga) tasa eta kuota
- Fakturaren zenbatekoa

Aukera dago bezero batekin hilabetetan egindako salmentak faktura bakar batean adierazteko. Fakturan egitate zergapegarri desberdinak badaude, kontzeptu horiek bananduta agertu behar dute: zerga-tasa eta zergaren zenbatekoa.

Balio Erantsiaren Gaineko zergadunek emandako fakturen erregistro-liburua eta jasotako fakturen erregistro-liburua bete behar dituzte.

**Fakturaren eredu bat**

Saltzailearen datuak: Izen-deiturak edo izen soziala: Helbidea: Telefonoa: Faxa: Posta elektronikoa:					
Faktura zk.:			Igorpen-tokia eta data:		
Eroslearen datuak: Izen-deiturak edo izen soziala: Helbidea: Telefonoa: Faxa: Posta elektronikoa:					
Albaranaren zk.:			Data:		
Zure eskariaren zk.:					
Erref. edo Kodea	Deskribapena	Kop.	Salneurria unitateko	Desk.	Zenbatekoa
Ezarpen-oinarria:					
BEZa:					
Zenbatekoa guztira:					
Oharrak:					

*Deskontua* zenbateko gordinei aplikatzen zaie:

Deskontuaren zenbatekoa = Salmentaren Zenbateko Gordina × Deskontuaren portzentajea

*Ezarpen-oinarria* = Zenbateko Gordina – Deskontua + Gastuak

*Zenbatekoa guztira* = Ezarpen oinarria + BEZa

**Adibidea**

Bilboko Ranbdom, S.L. enpresak Txanpon kaleko 4an du helbidea, P.K. 48090. IFKa: B-98/37583929 ; telefonoa: 695 66 24 74 eta faxa: 695 32 85 45.

Apirilaren 5ean, salmenta egin zion Pernando Barjena Goroztiari. Helbidea: Arizgoiti Enparantza 3, Donostian, K.P. 20004. IFZa: 16472484 H.

Pernando Barjena jaunak artikulu hauen eskaria egin zuen pasa den otsailaren lean:

A produktuko 4 unitate, erreferentzia TY896, 50 € unitateko.

C produktuko 6 unitate, erreferentzia CD247, 20 € unitateko.

Deskontua, eskura ordaintzeagatik, % 10 da, eta BEZa, % 16.

Eskariaren zenbakia 23 da, eta albaranaren zenbakia, 456/2.

Fakturaren zenbakia 367/08 da.

Dagokion faktura bete behar da.

Ranbdom, S.L. Txanpon kalea, 4 48090 Bilbo IFK: B-98/ 37583929 Telefonoa: 695 66 24 74 Faxa: 695 32 85 45					
Faktura-zk.: 367/08			Igorpen-tokia eta data: Bilbo, 2008-04-05		
Pernando Barjena Goroztia Arizgoiti Enparantza, 3 20004 Donostia IFZ: 16472484 H					
Albaranaren zk.: 456/2 Zure eskariaren zk.: 23			Data: 2008-02-01		
Erref. edo Kodea	Deskribapena	Kop.	Salneurria unitateko	Desk.	Zenbatekoa
TY896	A Produktua	4	50	% 10	200,00
CD247	C Produktua	6	20	% 10	120,00
Ezarpen oinarria					288,00
BEZa, % 16					46,08
Zenbatekoa guztira					241,92
Oharrak:					

#### 2.1.4. Ariketa

Faktura deskontuekin.

Martxoaren leian, Madrilgo (Arku kalea, 67, PK 28170), INVIXA, S.L. enpresa handizkariak (IFK: A-38/274860) salmenta egin zion Madrilgo (Zerra kalea, 55, PK: 28000) Barden xehekako merkatariari (IFK: A-25/448720), baliokidetasun-errekarguko erregimen berezipean.

Eskaria aurreko hilean egin zen, 34.579 zenbakiarekin, eta albaranaren zenbakia 456 da. Fakturaren zenbakia 52/08 da.

Eskatutako artikulak hauek dira:

A produktuko 800 unitate, 3 € unitateko, % 10eko deskontuarekin eta % 7ko BEZ gehi baliokidetasun-errekarguarekin.

B produktuko 30 unitate, 30 € unitateko, % 3ko deskontuarekin eta % 16ko BEZ gehi baliokidetasun-errekarguarekin.

Oharra: fakturaren igorleak BEZ gehi baliokidetasun-errekargua kobratzen dizkio xehekako merkatariari. Baliokidetasun-errekarguaren truke, xehekako merkatariak ez ditu egin behar ez fakturen erregistro-liburuak, ez aitorpenak ere.

Errekarguak hauek dira:

- BEZa % 16 bada, % 4
- BEZa % 7 bada, % 1
- BEZa % 4 bada, % 0,5



INVIXA, S.L. Arku kalea, 67 28170 Madril IFK: A-38/274860					
Faktura zk.: 52/08			Igorpen-tokia eta data: Madril, 2008-03-01		
Barden Zerra kalea, 55 28000 Madril IFK: A-25/448720					
Albaranaren zk.: 456		Data: 2008-02-01			
Eskaeraren zk.: 34579					
Kopurua	Deskribapena	Salneurria unitateko	% BEZa	% BE	Zenbatekoa
800	A Produktua Deskontua: % 10 Gutzizko partziala	3	7	1	2.400 -240 2.160
30	B Produktua Deskontua: % 3 Gutzizko partziala	30	16	4	900 -27 873
BEZa eta Balioki-detasun- errekarua	% 7	% 1	% 16	% 4	
Ezarpen-oinarria	2.160	2.160	873	873	3.033
Zergaren zenbatekoa	151,20	21,26	139,68	34,92	347,40
Zenbatekoa guztira					3.380,40
Oharrak:					

Egoeraren arabera, hiru faktura mota egin daitezke:

- *Faktura osoa.* Enpresek edo profesionalek jaso behar dutenean jaulkitzen da.
- *Faktura sinplifikatua.* Ordaina 100 € (BEZa ez barne) baino gehiago ez denean, eta beste alderdia enpresa edo profesionala ez denean egin daiteke soilik; eta ez da beharrezkoa jasotzailearen datuak fakturan agertzea.
- *Fakturak ordezkatzeko dituzten agiriak: tiketak.* Ordaina 3.000 € (BEZa barne) baino handiagoa ez denean, hurrengo jardueretan hauetan: ostalaritza eta sukaldaritza, pertsonentzako garraioa, xehekako salmentak, telefono-zerbitzuak, kirolguneen erabilera, eta abar. Hala ere, agiriak jaso behar ditu, gutxienez, zenbakia eta, dagokionean, seriea, IFKa, izen-abizenak, izen soziala, eta zerga-tasa edo *BEZa barne* adierazpena.

### 2.1.5. Ordainketa-agiriak

Behin faktura aurkeztuta, bezeroak hitzartutako unean eta eran ordainduko du. Ordainketa bi eratakoa izan daiteke: eskurakoa edo geroratua.

*Ordainketa eskurakoa:* bezeroak salgaiak jaso eta berehala, edo denbora-tarte laburrean, egingo du ordainketa, eta, normalean, deskontuak lor ditzake.

*Ordainketa geroratua:* bezeroak salgaiak eskuratu eta handik epe jakin batera egingo du ordainketa —sei hilabetera, adibidez—. Normalean, bezeroak errekarua ordaindu beharko du. Kasu horretan, abantailak hauek dira:

- Bezeroak likidezirik gabe ere eros dezake
- Ez du kanpo-finantzaketako kosturik
- Biltegiratze-kostuak murriztu egiten dira

Bestalde, hainbat ordainbide dago: *truke-letra*, *zor-agiria*, *txekea* eta *ordainagiria*.

#### - *Truke-letra*

Ordainketa-agindua daukan kreditu-agiria da. *1985/19 Truke-agirien eta Txekearen legeak* arautzen du.

Saltzaileak (*igorlea* edo *igortzailea*) erosi eta prestatzen du paper tinbredun hori, eta erosleari (*igorpendunari*) bidaltzen dio, sinatuta onar dezan. Horrek esan nahi du igorpenduna muga-egunean diru kopuru jakin bat ordaintzera behartuta dagoela. Igorleak beraren edo hirugarren pertsonaren agindura (*hartzailearen agindura*) kobratuko du. Normalean, hartzailea finantza-erakundea da. Truke-letran agente hauek agertzen dira:

- *Igorlea* edo *igortzailea*: letra sortu eta ordainketa agintzen duen pertsona da, saltzailea. Bere sinadurarik gabe truke-letrak ez du baliorik. Bere agindura edo hirugarren pertsona baten agindura, igor dezake truke-letra —hartzailea, normalean bankua—, epemuga arte gordez, eta hala, igorpendunari ordainketa zuzenean eskatuz.
- *Igorpenduna*: truke-letraren ordainketa egiteko agintzen zaion pertsona da. Baina betebeharrak hori sortzeko, nahitaezkoa da igorpendunak, sinatuta, truke-letra onartzea. Baliteke igorpendun bat baino gehiago izatea, eta, kasu horretan, horietako edonork hartzen du ordaintzeko betebeharra.
- *Hartzailea*: ordaindu behar zaion pertsona da, eta igorlea bera izan daiteke. Hirugarren pertsonaren agindura igortzen denean (bankuaren agindura), deskontuaren formula erabiltzen da normalean. Bankuak aurreratzen du ordainketa, baina deskontutasa eta komisioak ere kentzen ditu.

Truke-letran elementu formal hauek ageri dira:


- *Letraren tinbrea*: paper tinbreduna eta zenbatekora egokitua. Muga-eguna sei hil baino geroagokoa bada, paper tinbredunari dagokion balioak letraren zenbatekoa bikoiztuta izango du.

- *Igorpen-tokia*: truke-letra betetzen den herriaren izena.
- *Igorpen-data*: truke-letra betetzen den data.
- *Ordainketa-agindua*: truke-letraren hartzailearen izenak agertu behar du hemen; hau da, letra nori ordainduko zaion.
- *Zenbatekoa*: ordaintzeko diru kantitatea, zenbakitan adierazia.
- *Kantitatea*: ordaintzeko diru kantitatea, hitzez adierazita. Zenbakiz eta hitzez adierazitakoa bat ez badatoz, hitzez adierazitakoa nagusituko da.
- *Truke-letra muga-eguna*: igorleak ordainketa egiteko finkatutako data da.

Lau motatako muga-egun daude:

- *Data jakinekoa*: truke-letran zehaztutako egunean egin behar da ordainketa.
  - *Datatik epe baterakoa*: igorpen-data erreferentzia gisa hartuta hasiko da kontatzen ordaintzeko muga-eguna.
  - *Ikustean*: hartzaileak truke-letra aurkezten duen unean ordaindu beharko du igorpendunak.
  - *Ikustetik epe batera*: onarpen-datatik aurrera hasiko da kontatzen ordainketa-epea.
- *Ordainketa-helbidea*: ezer agertzen ez bada, igorpendunaren helbidea izango da.
  - *Klausulak*: klausularen bat finkatzeko tartea da. Arruntena *gasturik gabe* agertzea da; horrek esan nahi du ordainketarik ez dagoen kasuetan ez dela beharrezkoa letra protestatzea. Ezer jartzen ez bada, ulertzen da onarpenaren edo ordainketarik ezaren kasuan beharrezkoa dela letra protestatzea.
  - *Protestoa*: truke-letra baten onarpenik eza edo ordainketarik eza frogatzen duen legezko forma da. Igorleak protesto baten bidez egiaztatzen du egoera hori. Notarioak egingo du, akta bidez, letra protestatua geratzen dela dioen deklarazioa, eta igorpendunari bidaltzen dio. Notarioak 48 orduz gordeko du letra, eta igorpendunak onartzen edo ordaintzen badu, notarioak protesta ixten du, baina igorpendunak ez badu onartzen edo ordaintzen, auzibidea irekitzen da. Igorpendunaren kontura izaten dira protestoaren gastuak.
  - *Igorpendunaren izena eta helbidea*.
  - *Igorle edo igortzailearen izena, helbidea eta sinadura*.
  - *Onarpena*: bere sinaduraren bidez, igorpendunak letra ordainduko duela agintzen du.
  - *Abala*: truke-letra ordainduko dela bermatzea da abalaren helburua. Igorpendunak (abaldunak) ordaintzen ez duen kasuan, beste pertsona batek (abal-emaileak) ordaintzeko konpromisoa hartzen du, abala sinatuz. Letraren atzeko partean hori egiteko tarte bat dago.
  - *Endosua*: hartzaileak beste pertsona bati eman diezaioke letra, endosuaren bidez, eta, letrarekin batera, berari dagozkion eskubide guztiak. Endosuaren kasuan bi pertsonak parte hartzen dute: endosu-emailea (letra ematen duena) eta endosu-hartzailea (letra jasotzen duena). Letraren atzeko partean dago endosua egiten denean betetzeko tartea. Truke-letra bat nahi adina aldiz endosa daiteke.

### Truke-letraren aurreko aldea

IGORPEN LEKUA / LUGAR DE LIBRAMIENTO		ZENBATEKOA / IMPORTE	
IGORPEN DATA / FECHA DE LIBRAMIENTO		MUGAEGUNA / VENCIMIENTO	
KANBIO LETRA honen ordez, adierazitako mugaegunean ordainduko diozu / Por esta LETRA DE CAMBIO pagará usted al vencimiento expresado			
honi / a _____ ondoko kopurua (idatziz) la cantidad de (importe en letra) _____			
Persona edo entitatea: Persona o entidad: Helbidea edo bulegoa: Dirección u oficina: Herria / Población:		ordainketa egoitza honetan: en el domicilio de pago siguiente: BEZEROGAREN KONTU KODEA (BKS) / CÓDIGO CUENTA CLIENTE (CCC) <small>Entitatea/Entidad Bulegoa/Oficina: NDTCC Kontu de/Núm. de cuenta</small>	
ONARTZEN DUT / ACEPTO Data / Fecha (Sinadura) / (Firma)		Klausulak / Cláusulas: IGORPENDUA / LIBRADO Izena / Nombre: Egoitza / Domicilio: Herria / Población: P.K. / C.P.:	IGORTZAILEA / LIBRADOR (Sinadura, izena eta egoitza) (Firma, nombre y domicilio)
		Probintzia / Provincia:	DE 24,05 € A 48,08 € <b>L 023117 N</b>

Ez erabili tarte hau, inprimaketa magnetikoa egiteko baita / No utilizar este espacio por estar reservado para inscripción magnética

### Truke-letraren atzeko aldea

EZ ERABILI GOIKO TARTEA INPRIMAKETA MAGNETIKO EGITEKO BAITA / NO UTILICE EL ESPACIO SUPERIOR, POR ESTAR RESERVADO PARA INSCRIPCIÓN MAGNÉTICA

Ondokoaren abalaz / Por aval de  Data / Fecha  Abalemailearen izena eta egoitza / Nombre y domicilio del avalista	Ordain bekio honi / Páguese a  egoitza honetan / con domicilio en  Lekua eta data / Lugar y fecha  Endosatzailearen izena eta egoitza / Nombre y domicilio del endosante
---	--

### Adibidea

Bete truke-letra datu hauekin:



Mikel Jauregi Palazios Vitoria-Gasteizen bizi da, Abendaino kaleko 44an, P.K.: 00977.

Maiatzaren 3an, 2.300 €-ko altzariak erosi zizkion Almi enpresari (Bidebarrieta kalea 6, P.K.: 00987 Vitoria-Gazteiz).

Truke-letra ordaintzeko tokia: Bilbao Bizkaia Kutxa, Kale Nagusia 78, P.K.:00987, Vitoria-Gazteiz).

Ordainketa 30 egunera, ordaintzeko letraren bidez, egingo zuela finkatu zen, Bilbao Vizcaya Argentaria bankuaren agindura (Dato kalea 28, 00987 Vitoria-Gasteiz). Letra sinatu eta 10 egunera onartu da.

Ebazpena:

IGORPEN LEKUA VITORIA-GAZTEIZ		ZENBATEKOA 2.300 EURO	
IGORPEN DATA	Eguna hilabetea urtea 03 05 2008	MUGAEGUNA IKUSTETIK 30 EGUNERA	
KANBIO LETRA honen orde, adierazitako mugaegunean ordainduko diozu honi...BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA ..... ondoko kopurua (idatziz)...BI MILA ETA HIRUREHUN EURO .....			
Pertsona edo entitatea: BBK Helbidea edo bulegoa: KALE NAGUSIA,78 Herria: 00987-VITORIA-GAZTEIZ		Ordainketa egoitza honetan: BEZEROAREN KONTU KODEA (BKK) Entitatea/ Bulegoa/ KD  2150 6531 21 3256984562	
ONARTZEN DUT	Klausulak: GASTURIK GABE		IGORLEA
Data 2008/05/03  (Sinadura)	IGORPENDUA Izena: MIKEL JAUREGI PALAZIOS Egoitza: ABENDAINO, 44 Herria: VITORIA-GASTEIZ P.K.: 00977 Probintzia: ARABA		(Sinadura, izena eta egoitza)  ALMI BIDEBERRIETA, 6 00987 VITORIA-GASTEIZ


### Adibidea

Aurreko adibidearekin jarraituz, Almi enpresak letraren ordainketa norbaitek berma dezala eskatu dio Mikel Jauregi Palaciosi.

Mikel Jauregi Palaciossek Jose Garmendia Fuentesi (Obispo Unanue 6, P.K.:40506, Donostia) eskatu dio, eta hark maiatzaren 17an bermatu du.

Bete ezazu letra emandako datuekin.

Ebazpena:


Honen abalaz Jose Garmendia Fuentes  Data 2008ko maiatzaren 17a  Abal-emailearen izena eta egoitza Obispo Unanue, 6 40506 Donostia 	Ordain bekio honi:  Egoitza honetan:  Lekua eta data:  Endosatzailearen izena eta egoitza:	

**Adibidea**

Aurreko kasuetako datuak erabiliz, 2008ko ekainaren 10ean BBVAk (Dato kalea 28, 00987 Vitoria-Gasteiz) Vital Kutxari eman dio letra endosuaren bidez (Kale Nagusia 34, 40508 Donostia).

Bete ezazu letra.

Ebazpena:

Honen abalaz  Data  Abal-emailearen izena eta egoitza	Ordain bekio honi: Vital Kutxa Egoitza honetan: Kale Nagusia 34 40508 Donostia  Lekua eta data: Donostia, 2008ko ekainaren 10a  Endosatzailearen izena eta egoitza:  BBVA Dato, 28 00987 Vitoria-Gasteiz 	

**- Zor-agiria**

Agiri honen bidez, pertsona batek, sinatzaileak, onuradunari zenbateko zehatz bat egun jakin batean ordaintzeko konpromisoa hartzen du. Truke-letraren antzekoa da, baina zor-agiria egiten duena zorduna bera da —lehenengo pertsonan—, eta ez hartzekoduna. Bi dokumentuak, bai truke-letra, bai zor-agiria exekutiboak dira.

## Zor-agiriaren aurreko aldea

IPAR KUTXA	Erakundea	Bulegoa	KD	Kontuaren zenbakia
Arenal, 4	CCC			
48005 Bilbo				
				Euroak: # _____ # €
Muga-eguna (zenbakiz):				
ZOR AGIRI honen bidez, zehaztutako mugaegunean honako honi ordaintzeko hitza ematen dut: _____				
_____				
Euro kopurua (hitzez): _____				
Jaulkipen toki-egunak (hitzez): _____				
Ordaintzailearen sinadura				

## Zor-agiriaren atzeko aldea

Honako honen abalaz:	
Data	
Abal-emailea (izen-abizenak) eta helbidea	Abal-emailearen sinadura
Ordaindu honako honi:	
Data	
Endosatzailea (izen-abizenak) eta helbidea	Endosatzailearen sinadura

**- Txekea**

Agiri honen bidez diru kopuru jakin bat ordaintzeko agintzen da. Balore-titulua da, non pertsona batek (igorleak), igorlearen beraren edo hirugarren pertsona baten (hartzailearen) agindura, agintzen dion kreditu-erakunde bati (igorpendunari) diru kantitate jakin bat emateko hartzaileari. Igorleak, aldez aurretik, bere dirua kreditu-erakundearen esku utzi du bere dirua. Agiria sinatzen duten pertsona guztiak solidarioki behartuta daude.

Txekean agertzen diren elementu pertsonalak honako hauek dira:

*Igorpenduna:* igorlearen kargura txekea ordaindu behar duen kreditu-erakundea da.

*Igorlea:* kontuko fondoak dituen da. Ezinbestekoa da haren sinadura agirian agertzea.

*Hartzailea:* txekea kobratuko duen pertsona da.

Txekean hainbat datuk agertu behar dute:

- (1) Igorlearen izena
- (2) Igorpendunaren izena eta helbidea
- (3) Hartzailearen izena edo, horren ordez, «eramailea» hitza
- (4) Igorleak bankuan duen kontuaren zenbakia
- (5) Kopurua zenbakitan adierazita
- (6) Kopurua hitzez adierazita
- (7) Seriea eta txekearen zenbakia
- (8) Igorpen-tokia eta -data
- (9) Igorlearen sinadura

(2)					
IPAR KUTXA		Erakundea	Bulegoa	KD	Kontuaren zenbakia
Arenal, 4		CCC	(4)		
48005 Bilbo					
					Euroak: #__(5)____#_€
Txeke honen ordez__(3)_____					ordain
__(6)_____					Euro
__(8)_____					ren_____a._____
Seriea AA (7)	zk.0.000.000 – 0	4200	0	Igorlearen sinadura (9)	
Igorlearen izena (1)					

### Txekea igortzeko erak

- *Eramaileari:* esapide horren bidez adierazten da. Txekea aurkezten duen pertsonari egingo zaio ordainketa.
- *Izenduna:* pertsona jakin batentzat igortzen da txekea, eta pertsona hori da kobratuko duena.
- *Agindura:* agindura klausularekin pertsona jakin bat adierazten duena da, eta endosuaren bidez eskualda daiteke.



**Txeke motak**

Txekearen segurtasuna handiagoa izan dadin, txeke berezi batzuk daude.

— *Txeke gurutzatua*: igorleak edo txekea duenak bi marra paraleloekin gurutzatzen du txekea aurreko partean. Bankuek bakarrik kobra dezakete txeke mota hori, hots, hartzaileak ezin du zuzenean kobratu, kontuko abonua bidez baizik.


Bi eratakoa izan daiteke:

- Orokorra: bi marren artean ezer ez da zehazten, edo bakarrik *kontuan abonatzeko*.
  - Berezia: marra paraleloen artean banku baten izena agertzen da, eta txekean izendatu den bankuan bakarrik aurkez daiteke.
- *Kontuan abonatzeko txekea*: igorleak edo txekearen hartzaileak eskudirutan ordaintzea debeka dezake, txekearen atzeko aldean *kontuan abonatzeko* adierazpena jarrita.
- *Txeke adostua*: igorpendunak (bankuak) txekean agertzen diren datu guztiak ziurtatzen ditu, eta ordaintzeko beharrezko diru kopurua gordeko du igorlearen kontutik. Bankuak txekearen atzeko aldean egiten du ziurtapen hori.

**Adibideak**

1. Otsailaren 4an Jon Martinez Narbaezek moto bat erosi du Tito dendan, eta 1.000 € ordaindu du txeke izendun baten bidez.
  - a) Bete ezazu txekea (emandako ereduan)
  - b) Demagun, Jon Martinez Narbaezek txekea bi marra paraleloekin gurutzatzen duela. Zein izango dira horren ondorioak?

Ebazpena:

IPAR KUTXA	Erakundea	Bulegoa	KD	Kontuaren zenbakia
Arenal, 4	CCC	3084	0020	11 2345678901
48005 Bilbo				
Euroak: #1.000# €				
Txeke honen ordeztu ... TITOri.....ordain				
MILA----- Euro				
Bilbo, 2008ko otsailaren laua.				
Seriea AA	zk.0.000.000 – 0	4200	0	Igorlearen sinadura
Jon Martinez Narbaez				

2. Ander Perlada jauna auto-kontzesionario baten enpresaburua da. Aitor Galanta jaunak autoa erosi nahi du. Autoaren prezioa 60.000 € da, eta txeke baten bidez ordaindu nahi du. Zein motatako txekea onartu beharko luke Ander Perlada jaunak?

Ebazpena:

Ander Perlada jaunak txeke adostua onartu beharko luke. Horrela ziurtatuko du bankuak ordaintzeko beharrezko diru kopurua gordeko duela Aitor Galantaren kontutik.

### - *Ordainagiria*

Beste pertsona batengandik zor zuen diru kopurua jaso izana egiaztatzen duen dokumentua da. Normalean, taloitegian egoten dira eta bi zati izaten dituzte: ordainagiria bera eta matrizea.

Ez dago eredu ofizialik, eta enpresa bakoitzak berea egin behar du. Hala ere, honako datu hauek agertu beharko dute:

Ordainagiria ordainketa egin duen pertsonari ematen zaio, ordainketaren froga modura. Matrizea taloitegian gelditzen da, eta ordainagiria egin duen pertsonak gordetzen du.

Ordainagiriaren bi zatietan jasotzen dira oinarritzko datuak: ordainagiriaren zenbakia, ordaintzailearen izena, ordaindutako diru kopurua eta ordainketaren zergatia.

Ez dago eredu ofizialik, eta enpresa bakoitzak berea egin behar du. Hala ere, honako datu hauek agertu beharko dute:

- (1) Ordainagiriaren zenbakia
- (2) Ordainagiriaren igorpen-tokia eta -data
- (3) Dirua ematen duen enpresaren edo pertsonaren izena
- (4) Diru kopurua, zenbakitan eta idatziz. Ordainketa txekez egiten bada, txekearen zenbakia idaztea komeni da
- (5) Ordainketaren zergatia
- (6) Dirua jasotzen duen pertsonaren izena eta sinadura

Ordainagiria zk.: (1)	Ordainagiria zk.: (1)
Jaso dut: (3)	Igorpen-tokia eta -data (2)
Diru kopurua: (4) Euroak: #.....# (zenbakiz)	Jaso dut: (3) Euroak: #.....# (hitzez)
Ordainketaren zergatia (5)	Ordainketaren zergatia (5)
Data (2)	Dirua jasotzen duen pertsonaren izena eta sinadura (6)

**Adibidea**

Petra Fernandezek 2008ko maiatzaren 1ean *Balay Plus* garbigailu bat erosi du, Paskal izeneko dendan, eta 679 € ordaindu du, esku-dirutan.

- a) Bete ezazu dagokion ordainagiria.
- b) Zein da matrizearen eta ordainagiriaren beraren helburua?

Ebazpena:

a)

Ordainagiria zk.: 497	Ordainagiria zk.: 497
Jaso dut: Petra Fernandezengandik	2008ko maiatzaren 1a
Euroak: #679#	Jaso dut: Petra Fernandezengandik  Euroak #seihun eta hirurogeita hemeretzi#
<i>Balay Plus</i> garbigailuaren erosketagatik	<i>Balay Plus</i> garbigailuaren erosketagatik  Euroak #679#
2008ko maiatzaren 1a	Sinatuta  Ander Blaskobar-Paskal etxetresna-dendaren burua

- b) Matrizea: kontrolatzeko egiten da, eta taloitegian gelditzen da.

Ordainagiria bera ordainketa egin duenari ematen zaio, ordainketa egiaztatzeko.

**2.2. KONTRATUAK**

Enpresak, bere jardueran, hainbat kontratu egin behar ditu, arlo batean baino gehiagotan. Kontratua bi enpresa edo erakunderen artean egiten den idatzizko zein hitzezko akordioa da, batak besteari zerbitzu edo produktu bat eskaintzeko. Akordio horren helburua alde bietan eskubideak eta betebeharrak sorraraztea da, eta alde biak behartuta daude betetzera.

Kontratu mota asko daude, baina aipagarrienak hauek dira: salerosketa kontratua, zerbitzuak emateko kontratua, hornidura-kontratua eta aseguru-kontratua. Lan-kontratua beste ikasgai batean landuko dugu.

*Salerosketa-kontratua.* Kontratu honen bidez, ondasuna edo eskubidea saltzen den eragiketari saltzaileak eta erosleak bete behar dituzten baldintzak finkatzen dira. Kontratuan

parte hartzen duten pertsonak edo enpresak, salerosten diren ondasun edo eskubideak, horien prezioa eta ordaintzeko baldintzak zehaztu behar dira.

*Zerbitzuak emateko kontratua.* Askotan, enpresak beste enpresa batek ematen dituen zerbitzuak behar ditu. Adibidez, publizitate-kanpaina, kontabilitate-kudeaketa eta abar. Kontratu mota hauek salerosketa-kontratuen antzekoak dira.

*Hornidura-kontratua.* Enpresek, beren jarduerarako, elektrizitate-, ur-, telefono-, edota gas-zerbitzuak behar dituzte. Kontratu honen arabera, hornitzaileak zehaztutako hornitze-zerbitzuak berehala emateko agintzen du, eta horren truke, zerbitzuak jasotzen dituen enpresak zehaztutako dirua ordaindu behar dio. Kasu gehienetan, kontratu mota hauek atxikipen-kontratuak dira, hau da, baldintzak enpresa hornitzaileak aldeztu aurretik finkatzen ditu, kontratu-eredu bat sortuz.

*Aseguru-kontratua.* Enpresak, bere jardueran, ezusteko arriskuetatik babestea da kontratu honen helburua. Kontratu mota honetan, pertsona batek (aseguratuak) ezbehar baten kalteen ondorioen ardura ematen dio beste pertsona bati edo entitate bati (aseguratzaileari). Kontratua adierazten den duen dokumentuari aseguru-poliza deritzo, eta aseguratuak aseguru-primaren izeneko diru kopurua ordaindu behar du.

### 2.2.1. Ariketak

1. Azaldu zer den hornidura-kontratua.
2. Auto-aseguruaren erreferentzia hartuz, azaldu:
  - a) Zertan datza aseguru-kontratua?
  - b) Zer dira aseguru-poliza eta aseguru-primak?

### 2.2.2. Salerosketa-kontratuaren elementuak

Salerosketa-kontratuaren elementu pertsonalak eta elementu materialak daude.

*Pertsonalak.* *Eroslea* eta *saltzailea* dira. Hamazortzi urte baino gehiago dituzten pertsonak egin ditzakete kontratuak, edo emantzipatuta dauden 16 urte baino gehiagokoek.

*Materialak.* Kontratuaren *objektua* eta horretarako ordaintzen den *prezioa*. Objektuak posiblea, bidezkoa eta konkretua izan behar du, eta merkataritza barruan egon behar du. Prezioa askea da, eta alderdien adostasunez finkatzen da, dirutan; horren ordezko zerbait ere izan daiteke, baina betiere konkretua eta ziurra.

### 2.2.3. Salerosketa-kontratuko betebeharrak

Salerosketa-kontratua sinatzeak betebeharrak sortzen dizkie, bai erosleari, bai saltzaileari.

### **Eroslearen betebeharrak**

- Saldu den gauza ordaintzea, kontratuan adostutako baldintzetan.
- Ordaintzeko atzerapenik egonez gero, erosleak berandutzako interesak ordaintzea.
- Kontratuaren objektua jasotzea.

### **Saltzailearen betebeharrak**

- Saldu den gauza ematea, adostutako epean eta tokian.
- Saldutako gauza gordetzea erosleari eman arte.
- Kontratuaren objektuak egoera onean gordetzea, eta behar izanez gero, konpontzea.
- Salmentaren gastuak bere kontura hartzea, bestelakorik adostu ez bada.
- Saldu den gauzaren akatsez arduratzea.

**Kontratuaren eredia****ALDERDIAK****Kontratatuzailearen datuak**

<b>Enpresaren datuak</b>	<b>Ordezkairearen datuak</b>
Izena:	Izen-abizenak:
IFK:	NAN:
Helbidea:	Kargua:

**Kontratatuaren datuak**

<b>Enpresaren datuak</b>	<b>Ordezkairearen datuak</b>
Izena:	Izen-abizenak:
IFK:	NAN:
Helbidea:	Kargua:

**ADIERAZTEN DUTE**

Lehenengo. *Enpresa kontratatzaileak [aurrekariak azaldu].*

Bigarren. *Enpresa kontratatuak [aurrekariak azaldu].*

Hirugarren. *Bi alderdiek kontratu hau sinatu dute, honako klausula hauen arabera:*

**KLAUSULAK**

Lehenengoa. *KONTRATUAREN XEDEA*

Bigarrena. *EKINTZAK*

Hirugarrena. *KONTRATUA BETETZEKO EPEAK*

Laugarrena. *EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK*

Bosgarrena. *PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA*

**ADOSTASUNA**

*Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, kontratu honen bi ale egin dira, eta alderdi interesdunek sinatu dituzte behean adierazitako tokian eta egunean.*

Toki-egunak:

*Kontratatuzaileak O.E.*

*Kontratatuak O.E. (O.E.: ontzat emana)*

**Adibidea**

Hardopen informatika-enpresaren eta Magnanio merkataritza handizkako enpresaren arteko kontratua, Hardopen enpresak 70 ordenagailu erosteko.

**KONTRATUA****ALDERDIAK****Kontratatzaileren datuak**

<b>Enpresaren datuak</b>		<b>Ordez kariaren datuak</b>	
Izena: Hardopen	Informatika	Izen-abizenak:	Jon Zabala Mintegi
IFK:	L-4858525-Z	NAN:	72488440-G
Helbidea:	Kale Zahar auzoa, 39 Basauri-Bizkaia	Kargua:	Zuzendaria

**Kontratatuaren datuak**

<b>Enpresaren datuak</b>		<b>Ordez kariaren datuak</b>	
Izena:	Magnanio	Izen-abizenak:	Maribi Goiri Ajuria
IFK:	H-48081897-J	NAN:	78654498-H
Helbidea:	Maria Agirre kalea, 22 Bilbao-Bizkaia	Helbidea:	Zuzendaria

**ADIERAZTEN DUTE**

Lehenengo. *HARDOPEN INFORMATIKA* enpresak 70 ordenagailu erosi nahi ditu tresneria informatikoa mantendu eta konpontzeko asmoz, eta bere zerbitzu eta helbideak jakinarazteko.

Bigarren. *MAGNANIO* enpresak 70 ordenagailu salduko dizkio *HARDOPEN INFORMATIKA* enpresari, bere zerbitzu eta helbideen berri emateko.

Hirugarren. *Bi alderdiak aipaturiko guztiarekin bat etorri eta aipaturikoa betetzeko gaitasuna erakutsiz, kontratu hau sinatzen dute, honako klausula hauen arabera:*

**KLAUSULAK**

Lehenengoa. *KONTRATUAREN XEDEA*

Saltzaileak erosleari 3 alditan —hilabete bakoitzeko azken osteguna baino lehen—. emango dizkio 70 unitate STARGATE tresneria informatikoa, AMG-200 modelo, RAM 512 MB eta 200 GB,

Bigarrena. *PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA*

*HARDOPEN INFORMATIKA* enpresak *MAGNANIO* enpresari aipaturiko artikuluetatik, 5.265,00 euro, BEZa barne, ordainduko dizkio 2008ko abenduaren 15a baino lehen.

Hirugarrena. *BESTELAKO GASTUAK*

Garraio-kostuak eroslearen kontura izango dira.

Laugarrena. *KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK*


*Kontratu hau eten ahal izango da, dokumentu honetan jasotako klausulak betetzen ez badira. Aldeak Bilboko epaitegien jurisdikziopean arituko dira, beste edozein forori uko eginda.*

**ADOSTASUNA**

*Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, kontratu honen bi ale egin dira, eta alderdi interesdunek sinatu dituzte behean adierazitako tokian eta egunean.*

Toki-egunak                      Bilbon, 2007ko urriaren 2an

Kontratatzailerak O.E.



Kontratatuak O.E.



## 2.3. EBALUAZIOA

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzunik zuzenena.

1. Salerosketarekin zerikusia duten agiriak hauek dira:
  - a) Nomina, faktura eta albarana
  - b) Eskaria, faktura eta truke-letra
  - c) Eskaria, albarana eta faktura
2. Faktura batean...
  - a) ez da nahitaezkoa saltzailearen datu pertsonalak jartzea
  - b) salgaiaren deskribapenik ez da behar
  - c) saltzailearen datu pertsonalak eta salgaiaren deskribapena jarri behar dira
3. Truke-letraren agenteak edo elementu pertsonalak hauek dira:
  - a) Endosu-hartzailea, igorlea eta hartzailea
  - b) Igorlea, igorpenduna eta hartzailea
  - c) Hartzailea, endosatzailea eta abal emalea
4. Truke-letraren mugaeguna onarpen datatik aurrera kontatzen hasten denean, mota honetakoa da:
  - a) Data jakinerakoa
  - b) Ikustetik epe baterakoa
  - c) Ikustean ordaintzekoa
5. Zer egin behar da truke-letra ez bada onartzen, edo ez bada ordaintzen?
  - a) Endosua
  - b) Abala
  - c) Protestoa
6. Txekea igor daiteke:
  - a) Izenduna eta igorleari
  - b) Hartzaileari eta agindura
  - c) Izenduna, eramaileari eta agindura
7. Garraio-oharra...
  - a) Enpresa saltzaileak egiten du
  - b) Garraio-zerbitzua eta horren kostua jasotzeko da
  - c) Erosleak egiten du
8. Zer da faktura?
  - a) Salerosketa-eragiketak formalizatzeko agiria da
  - b) Merkantzia ematearen agiria da
  - c) Enpresa bati produktuak edo zerbitzuak eskatzeko agiria da
9. Fakturan, ezarpen-oinarria...
  - a) % 16 da beti
  - b) Artikuluaren prezioei deskontuak kenduz, eta, ondoren, eroslearen kontura diren gastuak gehituz kalkulatzen da



- c) Artikuluen prezioei eroslearen kontura diren gastuak gehituz, eta, ondoren, kantitate osoari deskontuak kenduz kalkulatzeko da
10. Salerosketa-eragiketaren barruan, sailkatu agiri hauek ordena kronologikoan, 1, 2, 3 eta 4 zenbakiak jarritz.
- a) Faktura
  - b) Eskaria
  - c) Ordainagiria
  - d) Albarana

## 2.4. ARIKETEN EBAZPENAK

### Kontratuak

1. Azaldu zer den hornidura-kontratua.

Kontratu mota bat da, non hornitzaileak hornitze-zerbitzuak (ura, telefonoa, gasa, elektrizitatea) berehala ematen dizkion enpresari, eta horren truke, zerbitzuak jasotzen dituen enpresak zehaztutako dirua ordaindu behar dio.

2. Auto-aseguruaren erreferentzia hartuz, azaldu:

- a) Zertan datza aseguru-kontratua?
- b) Zer dira aseguru-poliza eta aseguru-prima?

- a) *Aseguru-kontratua*: enpresak, bere jardueran, ezusteko arriskuetatik babestea da kontratu honen helburua.
- b) Aseguru-poliza aseguru-kontratua islatzen duen dokumentua da. Aseguru-prima aseguratuak ordaindu behar duen diru kopurua da.

## 2.5. EBALUAZIOA

- 3. c)
- 4. c)
- 5. b)
- 6. b)
- 7. c)
- 8. c)
- 9. b)
- 10. a)
- 11. b)
- 12. a) 3 / b) 1 / c) 4 / d) 2

*Finantza-plana.  
Nola finantzatu  
enpresa bat?*

**3**



Gai honekin hasi aurretik, enpresa-proiektuetako taldeak batu, eta saiatu honako galdera hauei erantzuten:

1. Gure enpresa proiektua aurrera eramateko, zenbat diru inbertitu edo eduki behar dugu?
2. Diru-sarrerak kontuan hartuta, nahiko diru izango dugu enpresak eguneroko eragiketak egiteko, hau da, ordainketak egiteko?
3. Denbora pasa ahala, enpresak zorrak ordaintzeko ahalmena izango du?
4. Nondik aterako dugu behar dugun dirua?
5. Epe laburrean, zer ondare elementu —ondasunak—, kobratzeko eskubide eta zer betebeharrak izango ditugu? Eta epe ertainean?
6. Etekinak izango ditu gure enpresak? Noiz eta zenbat, gutxi gorabehera?
7. Aurreko guztia ikusita, merezi du enpresa sortzeko ahalegina egitea?

### 3.1. FINANTZA PLANAREN OSAGARRIAK

Ikasgai honek enpresa baten finantza-plana nola egiten den jakitea du helburu, enpresaren bideragarritasuna aztertzeko. Finantza-planaren osagarriak hauexek dira: altxortegi-plana (diruzaintzaren aurrekontua), galera-irabazien kontua eta aurreikusitako balantzea.

1. Altxortegi-planaren bidez, enpresak hilabete batean edo une jakin batean ordainketak egin ahal izango dituen jakingo dugu, eta behar izanez gero, dirua nondik atera dezakegun ere bai.
2. Galera-irabazien kontuaren bidez, enpresak irabaziak ala galerak izango dituen jakingo dugu, eta horren arabera jokatuko dugu.
3. Aurreikusitako balantzeari esker, enpresak duen ondarearen egitura ezagutuko dugu, baita enpresak zorrei aurre egin diezaiekeen ala ez jakingo dugu.

Oso garrantzitsua da enpresa-proiektuaren finantza-plana sustatzaileek beraiek egitea, mailegua eskatzean ondo argudiatu eta defendatzeko, edo enpresan dirua sartu edo inbertitzeko prest dagoen bazkidea erakartzeko.

#### 3.1.1. Altxortegi-plana (diruzaintzaren aurrekontua)

Altxortegi-plana (diruzaintzaren aurrekontua) honetan datza: aldi jakin baterako (hilabeterako, adibidez) aurreikusi diren diru-sarrerak (kobrantzak, enpresaren aldeko interesak, dirulaguntzak...) eta diru-irteerak (ordainketak) taula batean jasotzean. Bien arteko diferentziarekin jakingo dugu enpresak dirua behar duen ala sobera izango duen.

Garrantzi handikoa da enpresaren diru-beharrak aldeztu aurretik kontrolatzea. Horrela, dirua behar izanez gero, askoz lasaiago eta errazago lor genezake; eta, gainera, aukera guztien artean merkeena har genezake. Adibidez, bankuan kreditu-kontua irekitzerakoan.



Altxortegi-plana egitean, kontuan hartu behar dira benetako kobrantzak (kobratzen diren unean, eta ez enpresak salmentak egiten dituenean) eta gastuak edo zorrak ordaintzen direnean, hau da, diru irteerak bakarrik.

Amortizazioak gastuak dira, baina diru-irteerak ez direnez, ez dira kontuan hartu behar altxortegi-plana egitean.

Bezeroek salmentak egin eta hilabeteko epea amaituta ordaintzen dutela jotzen badugu, diru-sarrera horiek *noiz* izango ditugun hartuko dugu kontuan.

Aurreikusitako diru-sarrerak eta diru-irteerak direnez, horiek guztiak kontuan hartzean, zuhur jokatu behar dugu, eta zalantzak izanez gero, diru-sarrerak behetik jo behar ditugu, eta diru-irteerak, berriz, goitik.

Altxortegi-plana egin eta gero jakingo dugu nahiko diru izango dugun ala ez. Dirua soberan badaukagu, bankuko kontu korrontean sartuko dugu. Diru falta izango dugula aurreikusten badugu, nondik lortuko dugun pentsatu beharko dugu. Ohikoena da kreditu kontua irekitzea, urtean zehar behar dugun kopuru handienarekin; baina beste aukera batzuk ere badaude: hornitzaileen ordainketak luzatzea, bezeroen kobrantzak aurreratzen saiatzea, bankuetan merkataritza-agiriak deskontatzea...

### 3.1.2. Adibideak

#### 1. Elektrizitate-negozio baten altxortegi-plana

Anek eta Manuk urtarrilean elektrizitate-negozio bat sortu dute, eta 2.000 euro jarri ditu bakoitzak, negozioarako.

- Urtarrilean, 1.000 €-ko kreditua eskatu eta jaso dute. Martxoan, ekainean, irailean eta abenduan, 200 € itzuli behar dizkiote bankuari, baita 15 €-ko interesak ere.
- Lokala alokatu dute, eta hilero 300 € ordaintzen dute.
- Urtarrilean 600 €-ko makineria erosi dute. 300 € euro otsailean ordainduko dute, eta falta dena hurrengo urtean. Makineriaren amortizazioa aurtun 60 €-koa da.
- Sute- eta lapurtze-aseguruak kontratatu dituzte urte baterako, eta 150 € ordainduko dute urtarrilean.
- Aurreikusitako salmentak hauek dira:
  - Otsaila, 1.000 €; martxoa, 1.200 €; apirila, 1.500 €; maiatza, 1.800 €; ekaina, 1.800 €; uztaila, 1.900 €; iraila, 2.000 €; urria, 2.000 €; azaroa, 2.000 € eta abendua, 3.000 €; baina bezeroek saldu, eta hilabeteko epea amaituta ordaintzen dute.
- Publizitatean 500 € gastatu dute; kopuru horren erdia urtarrilean ordainduko da, eta beste erdia abenduan.
- Hornitzaileei ordainduko dizkieten aurreikusitako gastuak hauek dira:
  - Urtarrila, 80 €; otsaila, 90 €; martxoa, 100 €; apirila, 90 €; maiatza, 80 €; ekaina, 90 €; iraila, 100 €; urria, 100 €; azaroa, 120 € eta abendua, 20 €.

- Bi sustatzaileek egiten dute lan negozioan. Bakoitzaren soldata 400 €-koa da, eta enpresak langile bakoitzeko Gizarte Segurantzari 80 € ordaindu behar dio hileroko (Gizarte Segurantzari hilabetea pasatuta ordaintzen zaio).
- Zerga, tasa eta kontribuzioak, uztailean 60 € eta abenduan 80 € ordainduko dituzte.
- Bankuak lau hilean behin, 3 €-ko interesak emango dizkie.
- Hornidurak 25 € ordaintzen dira hilean.

Egizu altxortegi-plana. Beharrezkoa izango da kreditu-kontua irekitzea? Zer hiletan? Zenbat dirukoa?

ALTXORTEGI PLANA													Guztira
	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	
<b>DIRU SARRERAK</b>													
Kide kapitalisten ekarpenak	4.000												4.000
Maileguak													
Eskatutako kredituak	1.000												1.000
Salmentak			1.000	1.200	1.500	1.800	1.800	1.900		2.000	2.000	2.000	15.200
Diru-laguntza publikoak													
Banku-kontuen interesak			3			3			3			3	12
Beste zerbitu sarrera													
<b>SARRERA GUZTIAK</b>	<b>5.000</b>		<b>1.003</b>	<b>1.200</b>	<b>1.500</b>	<b>1.803</b>	<b>1.800</b>	<b>1.900</b>	<b>3</b>	<b>2.000</b>	<b>2.000</b>	<b>2.003</b>	<b>20.212</b>
<b>DIRU IRTEERAK</b>													
Aktibo finkoko erosketak		300											300
Hornitzaileak	80	90	100	90	80	90			100	100	120	120	970
Alokairuak	300	300	300	300	300	300	300	300	300	300	300	300	3.600
Aseguru primak	150												150
Maileguen edota kreditu interesak			15			15			15			15	60
Maileguen edota kredituen amortizazioa			200			200			200			200	800
Soldadak	800	800	800	800	800	800	800	800	800	800	800	800	9.600
Gizarte Segurantzak		160	160	160	160	160	160	160	160	160	160	160	1.760
Hornidurak:	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	300
— Argindarra													
— Telefonoa													
— Ura													
Publizitateak	250											250	500
Zergak							60					80	140
Egokitze-lanak													
<b>IRTEERA GUZTIAK</b>	<b>1.650</b>	<b>1.675</b>	<b>1.600</b>	<b>1.375</b>	<b>1.365</b>	<b>1.590</b>	<b>1.345</b>	<b>1.285</b>	<b>1.600</b>	<b>1.385</b>	<b>1.405</b>	<b>1.950</b>	<b>18.225</b>
<b>SARRERAK eta IRTEERAK</b>	<b>3.350</b>	<b>-1.675</b>	<b>-597</b>	<b>-175</b>	<b>135</b>	<b>213</b>	<b>455</b>	<b>615</b>	<b>-1.597</b>	<b>615</b>	<b>595</b>	<b>53</b>	<b>1.987</b>
<b>KONTU KORRONTEAREN GEHITUTAKO SALDOA</b>	<b>3.350</b>	<b>1.675</b>	<b>1.078</b>	<b>903</b>	<b>1.038</b>	<b>1.251</b>	<b>1.706</b>	<b>2.321</b>	<b>724</b>	<b>1.339</b>	<b>1.934</b>	<b>1.987</b>	
<b>KREDITU KONTUAREN SALDOA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>

*Iruzkina:* Ez da beharrezkoa kreditu-kontua irekitzea. Nahiz eta otsailan, martxoan, apirilean eta irailan diru-sarrerak eta diru-irteerak diferentziak negatiboak diren, urtarrean eskatutako kredituari esker, nahiko diru izango du enpresak eguneroko eginkizumetarako, hilabete guztietan kontu korrontean saldoa positiboa baita, hau da, enpresak likidua baita.



## 2. Enpresari baten altxortegi-plana

- Mikelek, bere enpresa sortzeko, urtarrilean 5.000 € jarri ditu.
- 2.000 €-ko mailegua eskatu du urtarrilean, eta urtero —ekainean— 500 € itzuliko ditu. Hilabete guztietan, urtarrilean izan ezik, 15 €-ko interesak ordainduko ditu.
- Egokitze-lanetan 7.000 € gastatu ditu; 3.500 € urtarrilean ordainduko ditu, eta beste 3.500 €-ak, ekainean.
- Makineria 1.000 €-an erosi du, eta abenduan ordainduko du. Makineria 10 urtean amortizatuko da.
- Lehengaiak erosi ditu:
  - Urtarrila, 434 €; otsaila, 441€; martxoa, 509 €; apirila, 525 €; maiatza, 575 €; ekaina, 577 €; uztaila, 542 €; abuztua, 542 €; iraila, 577 €; urria, 575 €; azaroa, 577 €, eta abendua, 596 €. Guztira, 6.470 € dira, eta urtean zehar kontsumitzen dira.
- Aurreikusitako salmentak, merkatu-ikerketaren arabera, hauek dira:
  - Urtarrila, 1.736 €; otsaila, 1.764 €; martxoa, 1.764 €; apirila, 2.100 €; maiatza, 2.300 €; ekaina, 2.310 €; uztaila, 2.170 €; abuztua, 2.170 €; iraila, 2.310 €; urria, 2.300 €, azaroa, 2.310 €, eta abendua, 2.387 €. Guztira, 25.897 €.
- Langileen gastuak eta Gizarte Segurantzakoak hauek dira:
  - Urtarrila, 935 €; otsaila, 935 €; martxoa, 935 €; apirila, 935 €; maiatza, 935 €; ekaina, 935 €; uztaila, 1.695 €; abuztua, 935 €; iraila, 935 €; urria, 935 €; azaroa, 935 €, eta abendua, 1.695 €. Guztira, 12.740 € dira.
- Hilabeteko hornikuntza-gastuak (telefonoa, ura eta argindarra) hauek dira:
  - Urtarrila, 1.200 €; otsaila, 520 €; martxoa, 520 €; apirila 520 €; maiatza, 520 €; ekaina, 520 €; uztaila, 520 €; abuztua; 520 €; iraila, 520 €; urria, 520 €; azaroa, 520 € eta abendua; 520 €. Guztira, 6.920 €.

Egin ezazu altxortegi-plana. Beharrezkoa da kreditu kontua irekitzea? Erantzuna baiezkoa bada, zer hilabetetan eta zer diru kopuru?

ALTXORTEGI PLANA													Guztira
	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	
<b>DIRU SARRERAK</b>													
Kide kapitalisteen ekarpenak	5.000												5.000
Maileguak	2.000												2.000
Eskatutako kredituak													
Salmentak	1.736	1.764	2.040	2.100	2.300	2.310	2.170	2.170	2.310	2.300	2.310	2.387	25.897
Diru-laguntza publikoak													
Banku-kontuen interesak													
Beste zenbait sarrera													
<b>SARRERA GUZTIAK</b>	<b>8.736</b>	<b>1.764</b>	<b>2.040</b>	<b>2.100</b>	<b>2.300</b>	<b>2.310</b>	<b>2.170</b>	<b>2.170</b>	<b>2.310</b>	<b>2.300</b>	<b>2.310</b>	<b>2.387</b>	<b>32.897</b>
<b>DIRU IRTEERAK</b>													
Aktibo finkoko erosketak												1.000	1.000
Lehengaien erosketak	434	441	509	525	575	577	542	542	577	575	577	596	6.470
Alokairuak													
Aseguru-primak													
Maileguen edota kredituen interesak	0	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15	165
Maileguen edota kredituen amortizazioa						500							500
Soldatak eta Gizarte Segurantzak	935	935	935	935	935	935	1.695	935	935	935	935	1.695	12.740
Hornidurak:	1.200	520	520	520	520	520	520	520	520	520	520	520	6.920
— Argindarra													
— Telefonoa													
— Ura													
Publizitatea													
Zergak													
Egokitze-lanak	3.500					3.500							7.000
<b>IRTEERA GUZTIAK</b>	<b>6.069</b>	<b>1.911</b>	<b>1.979</b>	<b>1.995</b>	<b>2.045</b>	<b>6.047</b>	<b>2.772</b>	<b>2.012</b>	<b>2.047</b>	<b>2.045</b>	<b>2.047</b>	<b>3.826</b>	<b>34.795</b>
<b>SARRERAK eta IRTEERAK</b>	<b>2.667</b>	<b>-147</b>	<b>61</b>	<b>105</b>	<b>255</b>	<b>-3.737</b>	<b>-602</b>	<b>158</b>	<b>263</b>	<b>255</b>	<b>263</b>	<b>-1.439</b>	<b>-1.898</b>
<b>KONTU KORRONTEAN GEHITUTAKO SALDOA</b>	<b>2.667</b>	<b>2.520</b>	<b>2.581</b>	<b>2.686</b>	<b>2.941</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>KREDITU KONTUAREN SALDOA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>-796</b>	<b>-1.398</b>	<b>-1.240</b>	<b>-977</b>	<b>-722</b>	<b>-459</b>	<b>-1.898</b>	<b></b>

**Iruzkina:** Ekainaren aurretik diru-sarrerak ez dira nahikoa diru-irteerak kompenatzeko. Defizit hori estaltzeko, kreditu-kontua irekitzea erabaki du enpresariak, eta ekainean ireki behar du, dirurik gabe ez geratzearentan. Diru kantitateak, gutxienez, 1.898 €-koa izan behar du, enpresariak urte horretan behariko duen diru kantitate handiena hori baita. Komeni da, badaezpada ere, kreditu-kontua behar duen baino diru gehixegokoa izatea. Urtearen bukaeran, enpresariak bankuari diru kopuru hori zor izango dio.

**- Aurreikusitako galera eta irabazien kontua***Oharra*

Atal honekin hasi baino lehen, kontuan hartu behar dugu Espainian, 2007ko azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuaren arabera, Kontabilitate Plan Orokor berria arautu zela, mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainetarako, eta kontabilitate irizpideak onartu, eta 2008ko urtarrilaren lehen indarrean jarri zirela. Hori guztia, nazioarteko ego-kitzapenari begira, Europar Batasunaren legedian oinarritutakoa izan da.

Aurreko Kontabilitate Plan Orokorrarekin konparatuta, zenbait aldaketa egiten dira. Hain zuzen ere, 2008ko urtarrilaren lehen aurrera, balantzeak, galera-irabazien kontuak, ondare garbiaren aldaketak eta memoriak, osatzen dituzte enpresa txiki eta ertainen urteko kontuak. Enpresek hamabi hilean behin, urteko kontuak egin behar dituzte. Beraz, lege berriari jarraituz aurkeztuko dugu gaia.

Beraz, lege berriari jarraituz aurkeztuko dugu gaia.

Enpresak ekonomia-ekitaldiaren amaieran zer irabazi edo galera izango dituen kalkulatu dugu. Gomendatzen da zenbait urtetarako aurreikuspena egitea (hurrengo 3 urtetarako, esate baterako); lehenengo urtean gastu asko egon ohi dira, eta salmenta gutxi; beraz, enpresak galerak izatea da ohikoena. Hurrengo urteetan gastuak ez dira izaten hain handiak eta salmentak, berriz, igo egiten dira.

Aurreko ikasgaietan ikasi dugunez, enpresak bere jardura aurrera eramateko erosten dituen ondasunak inbertsioak dira; ekonomia-ekitaldi bat baino gehiago irauten dute enpresan. Ondare horiek amortizatu egiten dira, hau da, urtean agortzen ez direnez, dagokion urteko kopurua gastu gisa egotziko dugu. Adibidez, enpresak 5 urte irauten duen ibilgailua erosten badu, 5 urte horietan banandu behar du gastu hori; beraz, lehenengo urtean dagokion gastua erosketaren 1/5 izango da. **Gogoratu:** lur sailak ez dira amortizatzen, balioa galtzen ez dutelako.

Nola egiten da aurreikusitako galera eta irabazien kontua? Hasieran, aurreikusitako diru sarrerak, eta ondoren, aurreikusitako gastuak hartzen ditugu kontuan; bakoitza dagokion atalean kokatzen dugu, eta haien diferentzia positiboa bada, irabaziak lortuko ditu enpresak; negatiboa bada, ordea, galerak.

Hori guztia dagokion zutabearen adierazi behar du enpresak, nahiz eta gure kasuan ezin dugun horrela egin, enpresa sortzeko egoera da eta. Bai balantzea, bai galera-irabazien kontua egitean, bai dagokion ekitaldiaren, bai aurreko ekitaldiaren datuak adierazi behar dira.

Enpresaren kontu-emaitzak hobeto desberdintzeko, bi motatako emaitzak hartzen dira kontuan: *ustiapen-emaitza* eta *finantza-emaitza*. Enpresa sortzean, finantzaketa-gastuak oso handiak direlako egiten da hori, maileguak eskatzen baitira eta interesak ordaindu behar baitira. Baina denbora pasatu ahala, gastu horiek gutxituz joaten dira, eta enpresaren jardura errentagarria bada, nahiz eta hasieran finantzaketa-gastuak direla kausa enpresak galerak eduki, gero irabaziak izan ditzake.

Hori guztia dela eta, kontzeptu hauek ezberdinduko ditugu: *ustiapen-irabaziak*, *finantzaketa-sarrerak*, *ustiapen-gastuak* eta *finantzaketa-gastuak*. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar emaitzak gordinak direla, eta ondoren zergek enpresaren emaitzak gutxitu egingo dituztela.

### Egon litezkeen emaitzak eta horiek nola interpretatu

- Emaitza positiboa: arazorik ez dago, eta aurrera eraman dezakegu gure enpresa-proiektua.
- Emaitza negatiboa:
  - a) *Ustiapen-emaitza positiboa eta finantza-emaitza negatiboa*. Aurrera jarrai daiteke, finantzaketa-gastuak gero eta txikiagoak izango direlakoan.
  - b) *Ustiapen-emaitza negatiboa eta finantza-emaitza negatiboa*:
    - Ustiapen-galerak txikiak badira, eta negozioa ondo garatuko dela iruditzen bazaigu, aurrera jarraituko dugu. Normala da hasieran horrela gertatzea.
    - Galera handiak baldin badira, enpresa-proiektuari buruz hausnartu behar dugu.

### Galera eta irabazien kontua egiteko zenbait arau

1. Amortizatzen diren ondasunak (makinak, ibilgailuak, altzariak...) erosten ditugunean, urte horri dagokion gastua soilik jarri behar dugu.
2. Kontsumitzen ditugun lehengaiak soilik jar ditzakegu gastu gisa, eta ez erosi ditugun guztiak; kontsumitu barik gelditzen direnak hurrengo urterako utzi behar ditugu, hau da, kontsumitzen ditugunerako.
3. Erosi eta kontsumitu ditugun lehengaiak erositako prezioan jarri behar ditugu gastu gisa, ez du axola *noiz* ordainduko ditugun.
4. Alokairuaren fidantza edo bermea ez da gastua, alokairuaren epea amaitutakoan itzuli egingo baitigute.
5. Salmenta guztiak kontuan hartu behar ditugu ustiapenaren sarreretan jartzeko; ez du axola *noiz* ordainduko diguten.
6. Enpresakideen ekarpenak ezin dira jarri sarrera gisa.
7. Banku-mailegua edo kreditua ezin dira jarri sarrera gisa. Eta maileguaren itzulera ez da gastua, beraz ezin dugu sartu galera eta irabazien kontuan.

### Galera eta irabazien kontua egiteko erabili ohi diren hainbat azalpen

*Alokairua*: ondasun higigarriak zein ondasun higiezinak alokatzeagatik ordaintzen dugun diru kopurua. (*Ustiapen-gastua*: UG)

*Salgaien erosketak*: hornitzaileei erositako merkantziaren balio garbia da, hau da, deskontuak barne, gero, inolako eraldatzerik gabe saltzeko. (UG)

*Lehengaien erosketak:* hornitzaileei erositako produktuen balio garbia da, hau da, deskontuak barne, gero, enpresan eraldatzeko. (UG)

*Bilgarriak:* produktuak babesteko erabiltzen diren materialak dira. (UG)

*Ontziak:* produktua gordetzen duten materialak dira. (UG)

*Hastapen-gastuak:* aurreko ikerketaren zerbitzu-sariak, irteerako publizitatea, langileen hautaketa eta prestakuntzaren ordainketak. (UG)

*Beste zerga batzuk:* Udaleko, Autonomia Erkidegoko eta Estatuko erakundeei ordaindutako zergen zenbatekoa. Hemen ez da kontuan hartzen BEZa (Balio Erantsiaren Zerga). (UG)

*Garraioak:* beste pertsona batzuek enpresaren kontura egiten dituzten salmentak garraioko gastuak dira. (UG)

*Konponketak:* ibilgetuak (makinak, instalazioak, ibilgailuak...) egoera onean mantentzeko ordainketak dira. (UG)

*Soldatak:* enpresak langileei ordaintzen dizkien lansariak. (UG)

*Gizarte Segurantza enpresaren kontura:* enpresak Gizarte Segurantzari egindako kotizazio-kuotak dira. (UG)

*Aseguruak:* enpresak aseguru-enpresei ordaintzen dizkien aseguru-primak. (UG)

*Profesionalen zerbitzuak:* abokatuei, notarioei, ekonomialariei, eta abarrei ordaintzen zaien zenbatekoa, emandako zerbitzuengatik. (UG)

*Diru-laguntzak:* erakunde publiko zein pribatuak enpresari ez itzultzeko emandako diru kopurua. (Ustiapen-sarrerak: US)

*Aurreikusitako salmentak:* ekitaldian egiten diren salmenten zenbateko garbia da, hau da, deskontu eta salmenta-itzultzeak barne. (US)

*Ibilgetuen amortizazioak:* ibilgetuak, ekoizpen-jardueran erabiltzeagatik, jasaten duen urteko balio-galera. (UG)

*Banku-zerbitzuak eta antzekoak:* bankuaren komisioen gastuak eta antzekoak. (UG)

*Enpresaren aldeko banku-kontuen interesak.* (FS)

*Maileguen edo kredituen interesak:* enpresak bankuetatik mailegu edo kredituak jasotzeagatik bankuei ematen dizkien interesen zenbatekoa. (FG)

*Hornidurak:* elektrizitatearen, gasaren, uraren edo erregaien kontsumoen ordainketak. (UG)

AURREIKUSITAKO GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA	1. urtea	2.urtea	3.urtea
<b>DIRU SARRERAK</b>			
USTIAPEN SARRERAK			
Aurreikusitako salmentak			
<b>FINANTZAKETA SARRERAK</b>			
Banku-kontuaren interesak			
<b>GASTUAK</b>			
USTIAPEN GASTUAK			
Salgaien erosketak			
Lehengaien erosketak			
Alokairuak			
Aseguruak			
Konponketak			
Garraioak			
Publizitatea			
Hornidurak			
Profesionalen zerbitzuak			
Zergak			
Soldatak			
Gizarte Segurantza			
Amortizazioa			
Banku-zerbitzuak eta antzekoak			
<b>FINANTZAKETA GASTUAK</b>			
Maileguen edo kredituen interesak			
<b>Ustiapen-saldoa = Ustiapen-irabaziak – Ustiapen-gastuak</b>			
<b>Finantzaketa-saldoa = Finantzaketa-sarrerak – Finantzaketa-gastuak</b>			
<b>Ohiko jardueraren emaitza = Ustiapen-saldoa – Finantzaketa-saldoa</b>			

## Adibideak

### 1. Elektrizitate-negozio bateko aurreikusitako galera eta irabazien kontua

Anek eta Manuk elektrizitate-negozio bat sortu dute urtarrilean, eta 2.000 euro jarri ditu bakoitzak, negoziarako.

- Urtarrilean 1.000 €-ko kreditua eskatu, eta jaso dute. Martxoan, ekainean, irailean eta abenduan, 200 € itzuli behar dizkiote bankuari, baita 15 €-ko interesak ere.
- Lokala alokatu dute, eta hilero 300 € ordaintzen dute.
- Urtarrilean 600 €-ko makineria erosi dute. 300 € otsailean ordainduko dute, eta falta dena, hurrengo urtean. Makineriaren amortizazioa aurten 60 €-koa da.
- Sute- eta lapurtze-aseguruak kontratatu dituzte urte baterako, eta 150 € ordainduko dute urtarrilean.
- Aurreikusitako salmentak (salmenten zenbateko garbia) hauek dira:
  - Otsaila, 1.000 €; martxoa, 1.200 €; apirila, 1.500 €; maiatza, 1.800 €; ekaina, 1.800 €; uztaila, 1.900 €; iraila, 2.000 €; urria, 2.000 €; azaroa, 2.000 €, eta abendua, 3.000 €; baina bezeroek, saldu eta hileko epea amaituta ordaintzen dute.
- Publizitatean 500 € gastatu dute; kopuru horren erdia urtarrilean ordainduko da, eta beste erdia, abenduan.
- Hornitzaileei ordainduko dizkieten aurreikusitako gastuak hauek dira:
  - Urtarrila, 80 €; otsaila, 90 €; martxoa, 100 €; apirila, 90 €; maiatza, 80 €; ekaina, 90 €; iraila, 100 €; urria, 100 €; azaroa, 120 €, eta abendua, 20 €.
- Bi sustatzaileek lan egiten dute negozioan. Bakoitzaren soldata 400 €-koa da, eta enpresak langile bakoitzeko Gizarte Segurantzari 80 € ordaindu behar dio 11 hiletan (Gizarte Segurantzari hila pasatuta ordaintzen zaio).
- Zerga, tasa eta kontribuzioak, uztailan 60 €, eta abenduan 80 €, ordainduko dituzte.
- Bankuak, lau hilean behin, 12 €-ko interesak emango dizkie.
- Hornidurak 25 € ordaintzen dira hilean.

Egin ezazu 1.urtealdiaren aurreikusitako galera-irabazien kontua. Komentatu eta arrazoitu erantzuna.

AURREIKUSITAKO GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA	1. urtea	2.urtea	3.urtea
DIRU SARRERAK			
<b>USTIAPEN SARRERAK</b>	<b>18.200</b>		
Aurreikusitako salmentak	18.200		
<b>FINANTZAKETA SARRERAK</b>	<b>36</b>		
Banku-kontuaren interesak	36		
GASTUAK			
<b>USTIAPEN GASTUAK</b>	<b>17.040</b>		
Salgaien erosketak			
Lehengaien erosketak	870		
Alokairuak	3.600		
Aseguruak	150		
Konponketak			
Garraioak			
Publizitatea	500		
Hornidurak	300		
Profesionalen zerbitzuak			
Zergak	140		
Soldatak	9.600		
Gizarte Segurantzza	1.760		
Amortizazioa	60		
Banku-zerbitzuak eta antzekoak	60		
<b>FINANTZAKETA GASTUAK</b>	<b>60</b>		
Maileguen edo kredituen interesak	60		
<b>Ustiapen-saldoa = Ustiapen-irabaziak – Ustiapen-gastuak</b>	<b>1.160</b>		
<b>Finanketa-saldoa = Finanketa-sarrerak – Finanketa-gastuak</b>	<b>-24</b>		
<b>Ohiko jardueraren emaitza = Ustiapen-saldoa – Finantzaketa-saldoa</b>	<b>1.136</b>		

**Iruzkina:** enpresaren ustiapen-saldoa positiboa da, 1.160 €, eta finantzaketa-saldoa, berriaz, negatiboa, baina ez da oso handia, -24 €, eta ustiapen-saldoarekin konparatzen badugu, nahiko txikia da. Gainera, ustiapen-saldoak garrantzi handiagoa dauka, enpresaren jarduerak zer errentagarritasun izan duen adierazten duelako. Hortaz, kasu honetan enpresa-proiektuarekin jarraitzea gomendatzen da.



## 2. Enpresa baten aurreikusitako galera eta irabazien kontua

- Mikelek bere enpresa sortzeko, urtarrilean 5.000 € jarri ditu.
- 2.000 €-ko mailegua eskatu du urtarrilean, eta urtero —ekainean— 500 € itzuliko ditu. Hil guztietan, urtarrilean izan ezik, 15 €-ko interesak ordainduko ditu.
- Egokitze-lanetan 7.000 € gastatu du; 3.500 € urtarrilean ordainduko ditu, eta beste 3.500 €-ak, ekainean.
- Makineria erosi du, 1.000 €-an, eta abenduan ordainduko du. Makineria 10 urtean amortizatuko da.
- Lehengaiak erosi ditu:
  - Urtarrila, 434 €; otsaila, 441€; martxoa, 509 €; apirila, 525 €; maiatza, 575 €; ekaina, 577 €; uztaila, 542 €; abuztua, 542 €; iraila, 577 €; urria, 575 €; azaroa, 577 €, eta abendua, 596 €. Guztira 6.470 € dira, eta urtean zehar kontsumitzen dira.
- Aurreikusitako salmentak, merkatu ikerketaren arabera, hauek dira:
  - Urtarrila, 1.736 €; otsaila, 1.764 €; martxoa, 1.764 €; apirila, 2.100 €; maiatza, 2.300 €; ekaina, 2.310 €; uztaila, 2.170 €; abuztua, 2.170 €; iraila, 2.310 €; urria, 2.300 €, azaroa, 2.310 €, eta abendua, 2.387 €. Guztira, 25.897 €.
- Langileen gastuak eta Gizarte Segurantzakoak hauek dira:
  - Urtarrila, 935 €; otsaila, 935 €; martxoa, 935 €; apirila, 935 €; maiatza, 935 €; ekaina, 935 €; uztaila, 1.695 €; abuztua, 700 €; iraila, 935 €; urria, 935 €; azaroa, 935 €, eta abendua, 1.695 €. Guztira 12.740 € dira.
- Hileko hornikuntza-gastuak (telefonoa, ura eta argindarra), hauek dira:
  - Urtarrila, 1.200 €; otsaila, 520 €; martxoa, 520 €; apirila 520 €; maiatza, 520 €; ekaina, 520 €; uztaila, 520 €; abuztua; 520 €; iraila, 520 €; urria, 520 €; azaroa, 520 €, eta abendua; 520 €. Guztira, 6.920 €.

Egin ezazu 1.urtealdiko aurreikusitako galera eta irabazien kontua. Komentatu eta arrazoitu erantzuna.

AURREIKUSITAKO GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA	1. urtea	2.urtea	3.urtea
<b>DIRU SARRERAK</b>			
USTIAPEN SARRERAK	<b>25.897</b>		
Aurreikusitako salmentak	25.897		
FINANTZAKETA SARRERAK	0		
Banku-kontuaren interesak			
<b>GASTUAK</b>			
<b>USTIAPEN GASTUAK</b>	<b>32.995</b>		
Salgaien erosketak			
Lehengaien erosketak	6.470		
Alokairuak			
Aseguruak			
Konponketak	7.000		
Garraioak			
Publizitatea			
Hornidurak	6.920		
Profesionalen zerbitzuak			
Zergak			
Soldatak eta Gizarte Segurantzak	12.505		
Amortizazioa	100		
Banku-zerbitzuak eta antzekoak			
<b>FINANTZAKETA GASTUAK</b>	<b>165</b>		
Maileguen edo kredituen interesak	165		
<b>Ustiapen-saldoa = Ustiapen-irabaziak – Ustiapen-gastuak</b>	<b>-7.098</b>		
<b>Finantzaketa-saldoa = Finantzaketa-sarrerak – Finantzaketa-gastuak</b>	<b>-165</b>		
<b>Ohiko jardueraren emaitza = Ustiapen-saldoa – Finantzaketa-saldoa</b>	<b>-7.263</b>		

**Iruzkina:** Galera handiak sortzen dira. Ustiapen-saldoa negatiboa da, eta gainera, diru kopuru handian. Horregatik, komenigarria da enpresa-proiektua berriz planteatzea.

**- Balantzea**

*Balantzea* enpresa baten ondarearen kontabilitate-adierazpena da. Enpresaren *ondarea* honela dago osatua: enpresaren ondasunak, eskubideak eta betebeharrak.

*Ondasunak*: baliagarriak diren gauza materialak dira (makineria, ibilgailuak, altzariak, lan-tresnak), baita materialak ez diren gauzak ere; betiere, balioespen ekonomikoa baldin badaukate (patenteak).

*Eskubideak*: (kobratzekoak), bezeroek edo beste zordunek enpresari ordaindu behar dizkioten zorrak dira (kobratzeko fakturak, kobratzeko letrak...).

*Betebeharrak*: (ordaintzekoak), enpresak hornitzaileei edo beste hartzekodunei —enpresakideak barne— ordaindu behar dizkien zorrak dira (kredituak, banku-maileguak, ordaintzeko fakturak, ordaintzeko letrak, kapitala, erreserbak...).

*Ondarea*: *ondasunak, eskubideak eta betebeharrak*.

Enpresaren aberastasuna enpresaren ondasun eta eskubideen, eta enpresaren betebeharren arteko kendura da, eta horri *ondare garbi, garbi* edo *baliabide propio* deritzogu.

Beraz, ondare garbia da enpresak daukan guztia, gehi enpresari zor zaion guztia, ken enpresak ordaindu behar dituen zorrak.

$$\text{Ondare garbia} = \text{Ondasunak} + \text{Eskubideak} - \text{Betebeharrak}$$


**Adibidea**

1. Familia batek 6.000 € dauzka bankuko kontu korrontean, bizi den etxeak 20.000 € balio du, hipoteka-mailegua dauka, eta 5.000 € falta zaio ordaintzeko. Bere autoak 3.000 € balio du. Lagun bati 1.000 € zor dizkio. Zein da familiaren ondarea? Zein ondare garbia?

Ondarea: familiak daukan guztia, baita hipoteka mailegua eta zorra ere.

$$\text{Ondare garbia} = 6.000 + 20.000 - 5.000 + 3.000 - 1.000 = 23.000$$

Kontabilitatean, ondasun eta eskubideak aktiboan sartzen dira. Enpresaren betebeharrak, aldiz, bi multzotan sailka ditzakegu: pasiboa (enpresatik kanpokoentzat) eta ondare garbia (ja-beentzat).



*Aktiboa* bi zatitan banatzen da: *aktibo ez-korrontea (ez higikundea)* eta *aktibo korrontea (higikundea)*.

*Aktibo ez-korrontea.* Enpresan urtealdi ekonomiko bat baino gehiago irauten duten ondare-elementuak dira, eta kontu sail hauetan banatzen dira:

- *Ibilgetu ukiezinak:* monetarioak ez diren aktiboak dira, itxura fisikorik gabekoak (ikerkuntza, lizentziak, kontzesio administratiboak, informatika-aplikazioak...).
- *Ibilgetu materiala:* gauza ukigarriek osatzen dute (lursailak, eraikinak, makineria, instalazioak, tresneriak, altzariak...).
- *Higiezin inbertsioak:* enpresak lursailetan edo eraikinetan egin dituen inbertsioak.
- *Epe luzerako finantza-inbertsioak.*

Elementu material eta ez-materialen balio-galerari amortizazioa deitzen diogu, eta ibilgetu materialen edo ukiezin atalean islatuko dugu, baina zeinu negatiboarekin. Horrela, benetako ondarearen balioa agertuko da balantzean.

*Aktibo korrontea.* Enpresak *epe laburrean* (urtebetean edo gutxiagoan) daukan ondarea da, esku-dirua eta antzekoak, baita epe laburrean kobratzeko eskubideak ere.

- *Izakinak:* lehengaiak, fabrikazio-bidean dauden produktuak eta produktu bukatuak.
- *Merkataritza zordunak:* oraindik ordaindu ez duten bezeroak eta bestelako zordunak.
- *Epe laburrerako finantza-inbertsioak.*
- *Esku-dirua:* kutxa eta bankuetako kontu korrontek, aurrezki-kontuak...

*Pasiboa* hiru zatitan banatzen da: ondare garbia, pasibo ez-korrontea (ez higikundea) eta pasibo korrontea (higikundea).

- *Ondare garbia:* baliabide propioak, hau da, kapitala, erreserbak, ekitaldiko emaitza, jasotako diru-laguntzak, diru-emaitzak...
- *Pasibo ez-korrontea (ez higikundea):* enpresak dituen epe luzerako zorrak (kreditu-erakundeekin, hartzekodunekin...).
- *Pasibo korrontea (higikundea):* enpresak dituen epe laburrerako zorrak (kreditu-erakundeekin, hartzekodunekin...), hau da, enpresak epe laburrean ordaintzekoak.


Balantzearen pasiboak enpresak aktiboan inbertitutako dirua nondik atera duen adierazten du. Fondoer jatorria da.

Balantzearen aktiboak pasiboan agertzen den dirua enpresak zertan inbertitu duen adierazten du: fondoer erabilera. Beraz, aktiboek, guztira, eta pasiboek, guztira, berdina izan behar dute, nahitaez.

Kontuan hartu behar dugu, urtean zehar kontsumitutako ondasun eta zerbitzuen gastuak, eskura ordaindu badira, ez direla balantzean agertuko. Horren azalpena hau da: kontsumitu badira, ez dira jadanik enpresarenak, eta eskura ordaindu badira, enpresak ez dauka horiengatik inolako zorrik.

Antzeko zerbait gertatzen da eskura ordaindutako sarrerekin, kutxan edo bankuko kontu korrontetan agertuko baitira.

Enpresak izan dituen gastuak eta sarrerak kontu batean batzen dira *ekitaldiko emaitza* dugu, eta balantzean, Ondare Garbian agertzen dira, dagokion ikurrarekin (plus edo minus).



Balantzea egiterakoan, hiru zutabe jarri behar dira: memoriaren oharrak, ekitaldi horretako datuak eta aurreko ekitaldiko datuak.

### Enpresa txiki eta ertaintetako balantzea 20xx ekitaldiaren amaieran (ixtean)

KONTUEN ZENBAKIAK	AKTIBOA	MEMORIAREN OHARRAK	20XX	20XX-1
	<b>A) AKTIBO EZ KORRONTEA</b>			
	<i>Ibilgetu ukiezinak</i>			
	<i>Ibilgetu materiala</i>			
	<i>Higiezin inbertsioak</i>			
	<i>Epe luzerako finantza-inbertsioak</i>			
	<b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>			
	<i>Izakinak</i>			
	<i>Merkataritza-zordunak</i>			
	<i>Epe laburrerako finantza-inbertsioak</i>			
	<i>Esku-dirua</i>			
	<b>AKTIBOA GUZTIRA (A + B)</b>			
	<b>ONDASUN GARBIA ETA PASIBOA</b>			
	<b>A) ONDASUN GARBIA</b>			
	<b>BALIABIDE PROPIOAK</b>			
	<i>Kapitala</i>			
	<i>Erreserbak</i>			
	<i>Ekitaldiko emaitza</i>			
	<i>Bazkideen beste ekarpenak</i>			
	<i>Aurreneko ekitaldietako emaitzak</i>			
	<i>Jasotako diru-laguntzak</i>			
	<b>B) PASIBO EZ KORRONTEA</b>			
	<i>Kreditu-erakundeekiko zorrak</i>			
	<i>Hartzekodunak</i>			
	<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>			
	<i>Epe laburreko kredituak</i>			
	<i>Epe laburreko hartzekodunak</i>			
	<i>Epe laburreko beste zorrak</i>			
	<i>Hornitzaileak</i>			
	<b>ONDASUN GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)</b>			

**Adibidea**

Egin ezazu egoera-balantzea honako datu hauek kontuan hartuz:

- Salgaiak: 24.000 €
- Informatika-aplikazioak: 5.000 €
- Bankuko kontu korrontea: 5.000 €
- Erreserbak: 10.000 €
- Garraiorako elementuak: 30.000 €
- Ekitaldiko emaitza: 40.000 €
- Eraikinak: 150.000 €
- Bezeroak: 21.000 €
- Kutxa: 2.500 €
- Epe luzerako zorrak kreditu-erakundeekin: 12.000 €
- Altzariak: 2.000 €
- Kapitala: 170.000 €
- Hornitzaileak: 2.500 €
- Hartzekodunak: 5.000 €

**Enpresa txiki eta ertainetako balantzea 20xx ekitaldiaren amaieran**

KONTUEN ZENBAKIAK	AKTIBOA	MEMORIAREN OHARRAK	20XX	20XX-1
<b>A) AKTIBO EZ KORRONTEA</b>			<b>187.000</b>	
	<i>Ibilgetu ukiezinak</i>			
	Informatika-aplikazioak		5.000	
	<i>Ibilgetu materiala</i>			
	Eraikinak		150.000	
	Garraiorako elementuak		30.000	
	Altzariak		2.000	
<b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>			<b>52.500</b>	
	<i>Izakinak</i>			
	Salgaiak		24.000	
	<i>Merkataritza-zordunak</i>			
	Bezeroak		21.000	
	<i>Esku-dirua</i>			
	Bankua, kontu-korrontea		5.000	
	Kutxa		2.500	
<b>AKTIBOA GUZTIRA (A + B)</b>			<b>239.500</b>	
<b>ONDASUN GARBIA ETA PASIBOA</b>				
<b>A) ONDASUN GARBIA</b>				
	<b>BALIABIDE PROPIOAK</b>		220.000	
	<i>Kapitala</i>		170.000	
	<i>Erreserbak</i>		10.000	
	<i>Ekitaldiko emaitza</i>		40.000	
<b>B) PASIBO EZ KORRONTEA</b>			<b>12.000</b>	
	<i>Kreditu-erakundeekiko zorrak</i>			
	Epe luzerako zorrak kreditu-erakundeekin		12.000	
<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>			<b>7.500</b>	
	<i>Epe laburrerako hartzekodunak</i>		5.000	
	<i>Hornitzaileak</i>		2.500	
<b>ONDASUN GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)</b>			<b>239.500</b>	

### 3.2. AURREIKUSITAKO BALANTZEA

Behin balantzea zer den jakinda, hurrengo pausoa aurreikusitako balantzea zer den ikastea. Ekitaldiaren balantzea egin behar dugu amaieran aurreikusitako enpresaren ondarea nola geratu den jakiteko. Urtean zehar gure enpresak erosketak eta salmentak egin ditu, langileei soldatak ordaindu dizkie, eta baita zergak eta beste gastu batzuk ere ordaindu ditu. Horregatik, orain ikusi behar dugu zein den enpresaren ondarea: hasieran baino ondasun gehiago dauzkan, zor gehiago ala gutxiago, kobratzeko eskubide gehiago ala gutxiago... Ekitaldiaren amaieran egiten dugun balantzeak hainbat informazio ematen digu:

1. Pasiboak esaten digu nondik atera dugun dirua gure enpresa finantzatzeko, hau da, enpresan erabiltzeko. Eta aktiboak esaten digu dirua zertan inbertitu edo gastatu dugun. Hortaz, aktiboa eta pasiboa beti izango dira berdinak. Adibidez, guk 50.000 € sartzan badugu enpresan eta 80.000 €-ko mailegua eskatzen badugu, 60.000 €-ko makineria, 40.000 €-ko lehengaiak eta 20.000 €-ko erremintak erosteko eta 10.000 € bestelako ordainketak egiteko uzten baditugu kutxan, gure balantzea hauxe izango da:

#### *Aktiboa*

Makineria	60.000
Lehengaiak	40.000
Erremintak	20.000
Kutxa	10.000
Guztira	130.000

#### *Ondare Garbia eta Pasiboa*

Kapitala	50.000
Mailegua	80.000
Guztira	130.000

2. Balantzeak erakusten digu enpresa kaudimenduna izango den ala ez, eta horrela, porrotean gelditzeko arriskuan egongo den ala ez. Porrot egoera enpresak zorrei aurre egin ezin dienean gertatzen da: aktibo erreala txikiagoa da pasibo ez-korrontea gehi pasibo korrontea baino.

Adibidez, aktibo osoa, pasibo ez-korrontea gehi pasibo korrontea baino 1,5-2,5 aldiz handiagoa bada, orduan, enpresak kaudimena izango du, ez du porrot egingo. Baina, Aktibo Osoa, Pasibo ez-korrontea + Pasibo korrontea baino txikiagoa baldin bada, enpresa ez da kaudimenduna izango eta porrot-arriskuan egongo da.

3. Kaudimenduna den edo ez den jakiteaz gain, jakin behar dugu enpresak zorrei aurre egin diezaiekeen ordaintzeko unean, hots, zer *likidezia* duen. Horri *errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa* deitzen diogu.

Errotazio-fondoa edo Maniobra-fondoa = Aktibo korrontea – Pasibo korrontea
--

edo

Errotazio-fondoa edo Maniobra-fondoa = Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea – Aktibo ez-korrontea
---

Aktibo korrontea pasibo korrontea baino handiagoa (2 aldiz handiagoa) bada, orduan, enpresak likidezia izango du, eta ordainketa etenduratik urrun egongo da.

Pasibo korrontea > aktibo korrontea gertatzen bada, orduan, enpresa likidezia —eskasian egongo da, eta ordainketa— etenduratik hurbil.

4. Balantzeak baliabide propioen eta zorren arteko erlazioa erakusten digu. Komeni da % 50 / % 50 izatea.
5. Balantzean ikusten da, baita ere, epe laburreko eta epe luzeko zorren arteko proportzioa zuzena den ala ez. Epe laburreko zorrek, gehienez, % 25 izan beharko lukete.

## Adibidea

Orain, aurreko adibideko datuak kontuan hartuz, egoera-balantzea analizatuko dugu.

1. Pasiboak adierazten digu, bezeroen ekarpenak (170.000 + 10.000), eta epe luzeko gehi laburreko zorrak (12.000 + 7.500) direla eta, 40.000 €-ko etekinak lortu ditugula. Beraz, enpresak emaitza ona izan du.
2. Aktibo osoa 239.500 €-koa da, eta zor guztia 19.500 €-koa da; beraz, enpresa kaudimenduna da, nahikoa eta sobera.
3. Enpresaren likidezia nolakoa den jakiteko, errotazio-fondoa kalkulatu dugu.

$$\text{Errotazio-fondoa} = \text{Aktibo korrontea} - \text{Pasibo korrontea}$$

$$52.500 - 7.500 = 45.000 \text{ €}$$

Errotazio-fondoa positiboa eta oso altua denez, enpresak ez du inolako arazorik izango ordainketak egiteko.

4. Baliabide propioak % 91,86 dira, eta zorrak % 8,14. Oso positiboa da, positiboegia esan beharko genuke.
5. Epe luzeko eta epe laburreko zorren erlazioa % 61,54 eta % 38,46 da. Nahiz eta epe laburreko zorren portzentajea pixka bat handia izan, enpresaren egoera ikusita, ez dauka garrantzirik.

### 3.3. ERRENTAGARRITASUNAREN ANALISIA

Galera eta irabazien kontuko eta balantzearen datuak kontuan hartuta, enpresaren jabeek zein errentagarritasun atera dioten jakin dezakegu.

— *Finantza-errentagarritasuna*: jabeek enpresan inbertitzeagatik ateratako etekina da.

— *Honela kalkulatu da*: Ekitaldiko emaitza / Baliabide propioak.

Errentagarritasun ekonomikoa: enpresak bere jardueran erabiltzen dituen aktiboen etekina da. Hemen ez dio axola nork finantzatu duen enpresaren inbertsioa.

Honela kalkulatu da: Ekitaldiko emaitza / Aktibo osoa.



**Adibidea**

Peru Izarre jaunak PROKFIL, S.L. enpresaren bazkide kapitalista izateko eskaintza jaso du.

Erabakia hartzeko, lehenago enpresa horren urteko kontuak aztertu nahi ditu, eta Merkataritzako Erregistrora jotzen du enpresaren kontabilitate-informazioa eskatzeko. Beste datu batzuen artean Balantzekoak eta Galera eta irabazien kontuarenak eskuratu ditu:

- Baliabide propioak: 105.000 €
- Ustiapeneko emaitza: 22.700 €
- Ekitaldiko emaitza: 8.000 €
- Aktibo osoa: 241.000 €

Nola kalkula dezake Peru Izarre jaunak enpresaren errentagarritasuna, erabakia hartzeko?

Emitza:

Finantza-errentagarritasuna = Ekitaldiko emaitza / Baliabide propioak

Finantza-errentagarritasuna =  $8.000 / 105.000 = 0,0762$  €

Errazagoa denez, datu hau portzentajearen ematen da, beraz, % 7,62 da. Hau da, enpresaren jabeek inbertitutako diruaren etekina % 7,62 izan da.

Errentagarritasun ekonomikoa = Ekitaldiko emaitza / aktibo osoa.

Errentagarritasun ekonomikoa =  $22.700 / 241.000 = 0,0942$  €.

Portzentajearen % 9,42 da enpresaren errentagarritasun ekonomikoa.

Bi errentagarritasunen arteko aldea emaitza finantzarioagatik izan da.

Hasteko, Peru Izarre jaunak uste du komeni zaiola bere dirua enpresan inbertitzea, bankuko kontuaren errentagarritasuna % 2 baita. Hala eta guztiz ere, erabakia hartu baino lehen, beharrezkoa da enpresari buruzko informazio gehiago eskuratzeko.

**3.4. FINANTZAKETA ITURRIAK**

*Finantzazio-iturriak* enpresak bere diru-beharrei (gastuei) aurre egiteko dituen baliabide likidoak edo ordainbideak dira.

*Inbertsioa* finantzaketa-baliabideak erabiltzea da, ibilgetuak erosteko, berritzeko edo hobetzeko.

Inbertsioa eta finantzaketa elkarri lotuta daude, ezin baita inbertitu finantzaketarik gabe. Enpresak inbertsioa egitean, finantzaketa-iturri bat baino gehiago bilatu eta alderatu behar ditu, errentagarritasuna kalkulatzeko, eta horren aurrekontua egin behar du, proiektuaren edo inbertsioaren bideragarritasuna aztertzeko.

Enpresak egiten dituen inbertsioak oso erabakigarriak dira, enpresaren garapena baldintzatzen baitute etorkizunean.

## FINANTZAKETA ITURRIAK

*Kapital-ekarpenak.* Bazkideek egiten dituzten ekarpenak

*Berariazko finantzaketa.* Enpresak sortzen duen dirua da, eta bere jardueran erabiltzen du. Adibidez, enpresaren etekinak akzio-dunen artean banatzen ez badira, enpresan geratzen dira inbertsioak egiteko.

*Diru-laguntzak.* Enpresak erakunde publikoetatik jasotzen duen dirua da, betiere haiek ezarritako baldintzak betetzen baditu.

*Kanpoko finantzaketa.* Enpresaz kanpoko diru-baliabideak dira. Enpresak diru kantitate horiek itzuli egin behar ditu, baita interesak ordaindu ere. Epe luzerako zein epe laburrerako izan daitezke.

### 3.4.1. Kanpoko finantzaketa

#### • Mailegua

Enpresak finantza-erakunde bati dirua eskatzen dio epe zehatz baterako. Denboraldi bat pasatu ondoren, enpresak jasotako dirua gehi hitzartutako interesak itzuli behar ditu. Maileguak eta kredituak ez dira gauza bera. Maileguaren ezaugarriak hauek dira:

- Diru kantitate osoa lehenengo egunean jasotzen da.
- Lehenengo egunetik ordaintzen dira interesak.
- Erosketak egiteko edota proiektuak aurrera eramateko erabiltzen da.
- Ez da erabiltzen likidezia-eskasiari aurre egiteko.

Enpresak mailegua eskatzean, abala edo bermea behar du mailegua eskuratzeko, eta askotan, zaila da hori lortzea. Arazo hori konpontzearen, Elkarren Bermerako Sozietateak sortu dira, erakunde publikoen partaidetzarekin, eta helburu nagusia da enpresa txiki eta ertainei abalak ematea.

#### • Leasinga

Enpresak ibilgetu-elementuren bat har dezake errentan, kuota baten truke. Alokairu-epea amaitzen denean, leasing-enpresari ondasuna itzuli ala erosi egin diezaiokie enpresak, hondarbalioan.

Finantzaketa mota hau oso garestia da enpresarentzat, baina abantaila fiskalak ekartzen dizkio.

- **Rentinga**

Epe ertain edo luzeko ondasun higigarriak alokatzean datza. Enpresak errenta finko bat ordaintzeko konpromisoa hartzen du, eta renting-enpresak, berriz, zerbitzu batzuk ematen dizkio enpresari (ondasunaren mantentze-zerbitzua, konponketak, arrisku oroko aseguruak kontratatu...). Enpresak, kontratua amaitzean, ez du ondasuna erosteko aukerarik. Oso garestia da, baina abantaila fiskalak dauzka.

- **Arrisku Kapitaleko Sozietateak**

Enpresa hauek beste enpresa batzuk sortu eta zabaltzeko, edo proiektu berriak garatzeko finantzaketa ematen dute. Finantzaketa propioa jartzen dute, eta enpresa berrian akziodun bihurtzen dira; hala, enpresa berriaren balioa hazten denean, sozietate hauek kapital-partaidetza saldu egin dezakete, inbertsioa berreskuratu eta irabaziak lortzeko.

Ondoren, enpresaren *eguneroko jarduerarako* finantzaketa-iturriak ikusiko ditugu:

- **Kreditu-kontua**

Finantza-erakunde batek diru kantitate zehatz bat jartzen du enpresaren eskura. Maileguaren eta kreditu-kontuaren artean alde hauek daude:

- Dirua enpresaren esku jartzen da, eta enpresak aukera du dirua erabiltzeko ala ez erabiltzeko.
- Dirua erabiliz gero, enpresak interesak ordaintzen ditu, baina erabilitako diruagatik soilik.
- Likidezia-eskasiari aurre egiteko soilik eskatzen da, eta ez inbertsioak egiteko.
- Kredituaren interes-tasa maileguarena baino altuagoa da.

- **Confirminga**

Enpresak zerbitzu hau finantza-erakunde batekin kontratatzen du, eta enpresaren hornitzaileei ordaintzen die. Aukera dago hornitzaileek dirua lehenago kobratzeko, finantza-erakundeari komisioa ordainduz.

Eta enpresaren kontuan dirurik ez badago, dirua bankuak aurreratuko du, komisio baten truke.

- **Zorpeko kontua**

Saldo zorduna duen bankuko kontu baten egoera da.

Enpresak bankuko kontuan ordainketak egiteko nahiko diru ez daukanean, bankuak ordain ditzake zorrak, eta enpresaren kontua zenbaki gorritan utzi.

Interesak beste metodo batzuetan baino askoz altuagoak dira.

- **Efektu-deskontua**

Enpresak, finantza-erakunde bati eman diezazkioke letren bidez dokumentatzen diren bezeroen zorrak, haien muga-eguna iritsi baino lehen, eta finantza-erakunde horrek zenbatekoa aurreratuko du, komisio eta interes jakin batzuk kendu ondoren. Interes horri deskontua deritzo.

- **Factoringa**

Enpresak bezeroekin dituen kreditu-eskubide guztiak (fakturak, letrak, zor-agiriak...) kontratu baten bidez saltzen dizkio «faktore» izeneko enpresa bati, eta azken honek, berehalako likidezia ematen dio enpresari, eta arriskua bere gain hartzen du. Enpresarentzat interesak eta komisio-gastuak oso handiak dira, baina kobrantza-gestioak ekiditen ditu.

- **Hornitzaileek emandako finantzaketa**

Enpresak ibilgetu-elementua erostean, askotan, epeka ordaintzen die hornitzaileei. Erositako materialak eta hornidurak ordaindu gabe uzten direnean, enpresarentzat finantzaketa automatikoa da denbora tarte horretan.

## Adibidea

Finantzaketa-iturri hauen artean, aukeratu kasu bakoitzean zein den egokiena:

- Arrisku Kapitaleko Sozietateak
- Diru-laguntza
- Mailegua
- Hornitzaileek emandako finantzazioa
- Kontuko zorpekoa
- Efektu-deskontua
- Kreditu-kontua
- Faktoringa
- Confirminga
- Leasinga
- Rentinga

1. *kasua*: Pertsona batek enpresa sortu nahi du, baina ez dauka kapitalik.

2. *kasua*: Enpresa batek ibilgailua behar du.

3. *kasua*: Enpresari batek hornitzaileei garaiz ordaindu nahi die, nahiz eta une jakin batean dirurik ez izan.

4. *kasua*: Enpresari batek fakturak eskura kobratu nahi ditu.

— Ebazpena

1. *kasua*: Diru-laguntza, edo Arrisku Kapitaleko Sozietatea, edo mailegua Elkarren Bermerako Sozietateak emandako abalarekin.
2. *kasua*: Rentinga, edo Leasinga, edo mailegua Elkarren Bermerako Sozietatearen laguntzaz, hornitzaileak emandako finantzazioa, edo diru-laguntza.
3. *kasua*: Confirminga, edo kreditu-kontua.
4. *kasua*: Faktoringa.

## Ariketa

Pentsa ezazue zer finantzazio-iturri erabiliko zenuketen zuen enpresa-proiektua aurrera eramateko, eta kanpoko finantzaketa behar izanez gero, esan zein izango litzatekeen. Arrazoitu erantzuna.

### 3.5. ARIKETAK

1. Sailkatu hurrengo kontuak, enpresarentzat ondasunak, eskubideak ala beharrak diren esanez; halaber, aktibokoak (korrontea, ez-korrontea) ala ondare garbia ala pasibokoak (korrontea ala ez-korrontea) diren:

Bezeroak. Makineria. Hornitzaileak. Instalazioak. Erremintak. Enplegatuei emandako kredituak. Zordunak, ordaintzeko efektuak. Kapitala. Bezeroak, kobratzeko efektuak. Erreserbak. Bankuko mailegua (epe luzerako). Ordenagailuak. Salgaiak. Epe luzeko hartzekodunak. Epe laburreko hartzekodunak. Eskainitako zerbitzuengatik hartzekodunak. Altzariak. Kutxa, euroak. Bankuko aurrezki-kontuak.

2. Egin ezazu balantzea, ondare-elementu hauek emanda:

Kutxa, euroak. Epe luzera ordaintzeko efektuak. Eraikinak. Lehengaiak. Garraio-elementuak. Altzariak. Jabetza industrialak. Epe luzeko hornitzaileak. Kapitala. Erreserbak. Epe laburrerako zorrak. Eskainitako zerbitzuengatik hartzekodunak. Salgaiak. Bankuak eta kreditu-erakundeak, aurrezki-kontuak. Bezeroak.

3. Datu hauek kontuan hartuta, esan eta arrazoitu enpresa honen kaudimena eta likidezia (kantitateak mila eurokoak dira):

Aktibo ez-korrontea = 1.200	Baliabide Propioak = 2.000
Aktibo korrontea = 1.000	Pasibo ez-korrontea = 180
	Pasibo korrontea = 20

4. Datu hauekin, analizatu eta arrazoitu ezazu ea merezi duen enpresa proiektuarekin jarraitzea (kantitateak mila eurokoak dira):

Ibilgetu ukiezinak = 40	Kapitala = 40
Ibilgetu materiala = 160	Ekitaldiko emaitza = 14
Salgaiak = 40	Epe luzeko zorrak = 200
Bezeroak = 70	Epe laburreko zorrak = 100
Bankuko kontu korrontea = 44	

5. Egizu balantzea ondasun-elementu hauek kontuan hartuta, gero, analizatu, eta esan aurrera jarraitzea merezi duen ala ez (kantitateak mila eurokoak dira):

Lurzoruak = 200	Eraikinak = 150
Kapitala = 540	Lehengaiak = 90
Erreserbak = 150	Altzariak = 65
Epe luzerako zorrak = 200	Etekinak = 55
Ogasun Publikoa hartzekoduna epe laburrerako = 20	Ibilgetu materialaren amortizazio metatua = 200
Makineria = 180	Hornitzaileak = 180
Produktu bukatuak = 170	Jabetza industrialak = 190
Kutxa, euroak = 5	Bankuak = 35
Garraio-elementuak = 35	Ibilgetu ukiezinen amortizazio metatua = 80

6. Analizatu enpresa hauen balantzeak, ondare-masak konparatuz.

A Enpresa

Aktibo ez-korrontea
Aktibo korrontea

Baliabide propioak
--------------------

B Enpresa

Aktibo ez-korrontea
Aktibo korrontea

Baliabide propioak
Pasibo ez-korrontea
Pasibo korrontea

C Enpresa

Aktibo ez-korrontea
Aktibo korrontea

Baliabide propioak
Pasibo ez-korrontea
Pasibo korrontea

7. Zein da bi enpresa hauen egoera: egokiena, normala ala ordainketa-etendurakoa? Arrazoitu ondare-masak konparatuz, eta adierazi grafiko baten bidez.

A Enpresa

Aktibo ez-korrontea = 500  
Aktibo korrontea = 600

Baliabide propioak = 100  
Pasibo ez-korrontea = 200  
Pasibo korrontea = 800

B Enpresa

Aktibo ez-korrontea = 300  
Aktibo korrontea = 800

Baliabide propioak = 1.000  
Pasibo ez-korrontea = 90  
Pasibo korrontea = 10

8. Pertsona batek 300 €-ko kapital-ekarpena egiten du enpresa bat sortzeko. Urtarrilean abiarazten du enpresa, eta otsailean hasten da enpresaren jarduera.

Otsailean 180 €-ko mailegua eskatzen du. Abuztuan eta abenduan, 10 € itzuliko ditu, eta hilabete horietan 3 €-ko interesak ere ordainduko ditu.

80 €-ko lehengaiak erosten ditu, 70 € otsailean ordaintzen du, eta gainerakoa, hurrengo urteko martxoan. Enpresariak espero du erosi dituen lehengai guztiak kontsumitzea; hala ere, badaezpada, 15 € balioko lehengaiak ez dituela kontsumituko kalkulatu du.

Martxoan 100 euroko makineria erosten du, eta 35 € uzten ditu geroago ordaintzeko. Amortizazioa 10 urtekoa izango da.

Horniketak urtarriletik abendura arte 5 € ordaintzen ditu.

Lokala alokatzen du, eta hileko 15 € ordaintzen du urtarriletik abendura arte.

Urtarrilean sute- eta lapurtze-aseguruak kontratatu ditu, eta 30 € ordaindu.

Bankuak interesak ordaintzen dizkio, 1 € ekainean, eta beste euro bat, abenduan.

Aurreikusitako salmentak 50 €-koak dira otsailetik abendura arte, biak barne; baina bezeroek, saldu eta hilabeteko epea amaituta ordaintzen dute.

Langileen soldatak eta Gizarte Segurantzako kuotak 15 € dira, otsailetik abendura arte.

Emandako datuak kontuan hartuta, egin ezazu finantza-plana, eta baloratu enpresa-proiektuaren bideragarritasuna.

### 3.6. ARIKETEN EBAZPENAK

1. Bezeroak: eskubidea; aktibo korrontea

Makineria: ondasuna; aktibo ez-korrontea

Hornitzaileak: betebeharra; pasibo korrontea

Instalazioak: ondasuna; aktibo ez-korrontea

Erremintak: ondasunak; aktibo ez-korrontea

Enplegatuei emandako kredituak: eskubidea; aktibo ez-korrontea  
 Zordunak, ordaintzeko efektuak: betebeharra; pasibo korrontea  
 Kapitala: ondasuna; ondare garbia  
 Bezeroak, kobratzeko efektuak: eskubidea; aktibo korrontea  
 Erreserbak: ondasuna; ondare garbia  
 Bankuko mailegua (epe luzerako): betebeharra; pasibo ez-korrontea  
 Ordenagailuak: ondasunak; aktibo ez-korrontea  
 Salgaiak: ondasunak; aktibo korrontea  
 Epe luzerako hartzekodunak: betebeharrak; pasibo korrontea  
 Eskainitako zerbitzuengatik hartzekodunak: betebeharrak; pasibo korrontea  
 Altzariak: ondasunak; aktibo korrontea  
 Kutxa, euroak: ondasunak; aktibo korrontea  
 Bankuko aurrezki-kontuak: ondasuna; aktibo korrontea

## 2. Aktiboa

---

### *Aktibo ez-korrontea*

#### *Ibilgetu ukiezina*

Jabetza industrial

#### *Ibilgetu materiala*

Eraikinak

Garraio-elementuak

Altzariak

### *Aktibo korrontea*

#### *Izakinak*

Salgaiak

Lehengaiak

#### *Merkataritzako zordunak*

Bezeroak

#### *Efektiboa eta antzeko aktibo likidoak*

Bankuko aurrezki-kontuak

Kutxa, euroak

---

### **Aktiboa, guztira**

---



*Ondare garbia eta pasiboa**Ondare garbia*

Kapitala

Erreserbak

*Pasibo ez-korrontea**Epe luzerako zorrak*

Epe luzera ordaintzeko efektuak

Epe luzerako hornitzaileak

*Pasibo korrontea**Epe laburrerako zorrak*

Eskaintako zerbitzuengatik hartzekodunak

Epe laburrerako zorrak

---

**Ondare garbia eta pasiboa, guztira**

---

## 3. Kaudimena:

Alderatu behar ditugu aktibo osoa eta pasibo ez-korrontea + pasibo korrontea.

$2.200 > 180 + 20$ , beraz, enpresa kaudimenduna da eta porrotetik urrun dago.

Likidezia:

Aktibo korrontea eta pasibo korrontea alderatu behar ditugu.

$1.000 > 100$ , beraz, enpresak likidotasuna dauka eta ordainketa etenduratik urrun dago.

4. A) Enpresaren ondare garbia 54 mila € da (kapitala = 40 + ekitaldiko emaitza = 14), eta (200 + 100) zorrekin 354 mila € aktiboa eskuratu du. Horrek 14.000 euroko etekinak lortu dituela esan nahi du.
- B)  $354 > 300$  denez gero, enpresa kaudimenduna da, baina egoera oso estua da, hau da, porrotetik hurbil dago.
- C) Aktibo korrontea pasibo korrontea baino handiagoa,  $154 > 100$ , beraz, enpresak likidotasuna dauka, eta ordainketa-etenduratik urrun dago.
- D) Baliabide propioen eta zorren arteko erlazioa % 15 / % 85-a da, eta horrek esan nahi du enpresa izugarri zordunduta dagoela.
- E) Epe luzerako eta epe laburrerako zorren arteko erlazioa, % 66 / % 34 da, onargarria.

Ondorioa: enpresa oso zordunduta dago; horregatik, kapital ekarpena egitea eta zorrak murriztea gomendatzen da.

## 5. Aktiboa

*Aktibo ez-korrontea*

<i>Ibilgetu ukiezina</i> . . . . .	<b>110</b>
Jabetza industrialak . . . . .	190
Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua . . . . .	-80
<i>Ibilgetu materialak</i> . . . . .	<b>430</b>
Lurzoruak . . . . .	200
Eraikinak . . . . .	150
Garraio-elementuak . . . . .	35
Altzariak . . . . .	65
Makineria . . . . .	180
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua . . . . .	-200

*Aktibo korrontea*

<i>Izakinak</i> . . . . .	<b>260</b>
Lehengaiak . . . . .	90
Produktu bukatuak . . . . .	170
<i>Merkataritzako zordunak</i> . . . . .	<b>125</b>
Bezeroak . . . . .	125
<i>Efektiboa eta antzeko aktibo likidoak</i> . . . . .	<b>40</b>
Bankuak . . . . .	35
Kutxa, euroak . . . . .	5

---

**Aktiboa, guztira** . . . . . **965**

---

*Ondare garbia eta pasiboa*

<i>Ondare garbia</i> . . . . .	745
Kapitala . . . . .	540
Erreserbak . . . . .	150
Ekitaldiko emaitza . . . . .	55

*Pasibo ez-korrontea*

<i>Epe luzerako zorrak</i> . . . . .	<b>20</b>
Epe luzerako zorrak . . . . .	20

*Pasibo korrontea*

<i>Epe laburrerako zorrak</i> . . . . .	<b>200</b>
Hornitzaileak . . . . .	180
Ogasun Publikoa hartzekoduna epe laburrerako . . . . .	20

---

**Ondare garbia eta pasiboa, guztira** . . . . . **965**

---

## 6. A enpresa

Enpresa egoera egokienean dago.

Enpresak ez dauka zorrik, ez epe luzerako, ez epe laburrerako, edo, beste era batera esanda, bere aktiboa kanpoko dirua eskatu barik finantzatuta egon da; beraz, enpresak ez dauka inolako finantzaketa-arazorik.

## B Enpresa

Enpresaren aktibo korrontea pasibo korrontea baino handiagoa da, hau da, epe laburreko zorrei aurre egin ahal izango die.

## C Enpresa

Enpresa ordainketa-etendurako egoeran dago. Enpresak badu aktibo nahikoa bere zorrei aurre egiteko, baina une horretan ez dauka aktibo korronte nahikorik epe laburreko zorrak ordaintzeko.

## 7. A enpresa

Aktibo ez-korrontea 500
Aktibo korrontea 600

Baliabide propioak 100
Pasibo ez-korrontea 200
Pasibo korrontea 800

A enpresa ordainketa-etendurako egoeran dago.

## B enpresa

Aktibo ez-korrontea 300
Aktibo korrontea 800

Baliabide propioak 1.000
Pasibo ez-korrontea 90
Pasibo korrontea 10

B enpresaren egoera arrunta da, egoera egokienetik hurbil dago.

ALTXORTEGI PLANA												
	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
DIRU SARRERAK												
Kide kapitalisteen ekarpenak	300											
Maileguak		180										
Salmentak			50	50	50	50	50	50	50	50	50	50
Banku-kontuen interesak						1						1
SARRERA GUZTIAK	300	180	50	50	50	51	50	50	50	50	50	51
DIRU IRTEERAK												
Aktibo finkoko erosketak			65									
Lehengaiak		70										
Alokairuak	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15
Aseguru-primak	30											3
Maileguen edota kredituen interesak								3				10
Maileguen edota kredituen amortizazioa								10				10
Soldatak eta Gizarte Segurantzak		15	15	15	15	15	15	15	15	15	15	15
Hornidurak	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5
IRTEERA GUZTIAK	50	105	100	35	35	35	35	48	35	35	35	48
SARRERAK eta IRTEERAK	250	75	-50	15	15	16	15	2	15	15	15	3
KONTU KORRONTEAN GEHITUTAKO SALDOA	250	325	275	290	305	321	336	338	353	368	383	386
KREDITU KONTUAREN SALDOA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0

**Iruzkina:** Ez da beharrezkoa kreditu-kontua irekitzea, sarrerak irteerak baino handiagoak baitira. Kontu korrontearen saldoa urtearen amaieran oso positiboa da: 386 €.

AURREIKUSITAKO GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA	1. urtea	2.urtea	3.urtea
DIRU SARRERAK			
<b>USTIAPEN SARRERAK</b>	<b>550</b>		
Aurreikusitako salmentak	550		
FINANTZAZIO SARRERAK	2		
Banku-kontuaren interesak	2		
GASTUAK			
<b>USTIAPEN GASTUAK</b>	<b>510</b>		
Salgaien erosketak			
Lehengaien erosketak	65		
Alokairuak	180		
Aseguruak	30		
Konponketak			
Garraioak			
Publizitatea			
Hornidurak	60		
Profesionalen zerbitzuak			
Zergak			
Soldatak eta Gizarte Segurantzak	165		
Makineriaren amortizazioa	10		
Banku-zerbitzuak eta antzekoak			
<b>FINANTZAZIO GASTUAK</b>	<b>6</b>		
Maileguen edo kredituen interesak	6		
<b>Ustiapen-saldoa = Ustiapen-irabaziak – Ustiapen-gastuak</b>	<b>40</b>		
<b>Finantzaketa-saldoa = Finantzaketa-sarrerak – Finantzaketa-gastuak</b>	<b>–4</b>		
<b>Ohiko jardueraren emaitza = Ustiapen-saldoa – Finantzaketa-saldoa</b>	<b>36</b>		

**Iruzkina:** Ustiapen-saldoa 40 €-koa da, baina finantzazio-saldoa (–4) negatiboa denez gero, ohiko jardueraren emaitza 36 € izanik, murriztu egiten da. Gure ustez, emaitzak onak dira, batez ere lehenengo urtekoak direlako, eta hor ohikoena delako galerak izatea.

### Enpresa txiki eta ertainetako balantzea 20xx ekitaldiaren amaieran

KONTUEN ZENBAKIAK	AKTIBOA	MEMORIAREN OHARRAK	20XX	20XX-1
<b>A)</b>	<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>		<b>90</b>	
	<i>Ibilgetu materiala</i>		90	
	Makineria		100	
	Ibilgetu materialaren amortizazio metatua		-10	
	<i>Higiezin inbertsioak</i>			
	Finantza-inbertsioak epe luzerako			
<b>B)</b>	<b>AKTIBO KORRONTEA</b>		<b>451</b>	
	<i>Izakinak</i>			
	Lehengaiak		15	
	<i>Merkataritza-ordunak</i>			
	Bezeroak		50	
	<i>Esku-dirua</i>			
	Bankuak, kontu korrontea		386	
	<b>AKTIBOA GUZTIRA (A + B)</b>		<b>541</b>	
	<b>ONDASUN GARBIA ETA PASIBOA</b>			
<b>A)</b>	<b>ONDASUN GARBIA</b>		<b>336</b>	
	<b>BALIABIDE PROPIOAK</b>			
	<i>Kapitala</i>		300	
	<i>Ekitaldiko emaitza</i>		36	
<b>B)</b>	<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>		<b>160</b>	
	<i>Kreditu-erakundeekiko zorrak</i>			
	Mailegua		160	
<b>C)</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>		<b>45</b>	
	<i>Epe laburrerako hartzekodunak</i>			
	Ibilgetuaren hornitzaileak		35	
	<i>Hornitzaileak</i>		10	
	<b>ONDASUN GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)</b>		<b>541</b>	

#### ***Iruzkina:***

- Pasiboak erakusten duenaren arabera, 300 €-ko kapitalarekin, 160 €-ko mailegurekin eta 10 + 35 zorrekin, enpresak 36 €-ko etekinak lortu ditu.
- $541 > 160 + 45$ ; beraz, enpresa kaudimenduna da eta porrotetik urrun dago, ez dago arriskuan.
- $451 > 45$ ; beraz, enpresak likidezia dauka, eta ordainketa-etenduratik urrun dago.
- Baliabide propioen eta zorren arteko erlazioa ona da: % 62 / % 38.
- Epe luzeko eta epe laburreko zorren arteko erlazioa, % 78 / % 22 da, oso ona.

#### ***Ondorioa:***

Altxortegi-plana, galera eta irabazien kontua eta balantzea aztertu ondoren, merezi du enpresa proiektuarekin jarraitzea.



# *Bibliografia*





DELGADO, Concepción; PALOMERO, Juan eta SAN MARTÍN, Julián: *Economía y organización de empresas*, Palomero Delgado Editores, S.L., Logroño, 2004.

REY, Josep: *Administración, gestión y comercialización en la pequeña empresa*, Edebé, Barcelona, 2005.

ALFARO, José; GONZÁLEZ, Clara eta PINA, Montserrat: *Ekonomia eta enpresen antolaketa*, Mc Graw Hill, Madrid, 2003.

GÁNDARA, Javier; ALONSO, Araceli eta SALINAS, José Manuel: *Administración, gestión y comercialización en la pequeña empresa*, Mc Graw Hill, Madrid, 2006.

ARRATIBEL, Nagore eta OJANGUREN, Miren Josebe: *Enpresa txiki eta ertainen administrazioa eta kudeaketa*, Elhuyar, Usurbil, 2000.

1514/2007 Errege Dekretua, azaroak 16: *Plan General de Contabilidad*.

1515/2007 Errege Dekretua, azaroak 16: *Plan General de Contabilidad para Pymes y Microempresas*.















